



AZPEITIKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA
GARMENDIALDE 2. HE-KO 2.2 "PERDILLEGI" AZPIEREMUARI ETA
"SAN MARTIN" 2.3 JZ-RI DAGOKIENEZ

2022ko abendua

I TESTUA

AZPEITIKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA
GARMENDIALDE 2. HE-KO 2.2 "PERDILLEGI" AZPIEREMUARI ETA "SAN
MARTIN" 2.3 JZ-RI DAGOKIENEZ

2022ko abendua

I TESTUA

TALDE IDAZLARIA:

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa

Iñigo Peñalba Arribas, arkitekto doktorea

Carmen Segurola Lázaro, geografoa, Ingurumen eta Lurralde Azterketetako masterra

Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua

Maria José Fernández Calonge, delineazioa eta edizioa

Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa

Kolaboratzailea: ECOLAN, S.L. (zarata-azterketa)

AURKIBIDE OROKORRA

* **“1. MEMORIA” dokumentua.**

- “1.1. Hirigintza-antolamendua eta horren egikaritzea justifikatzeko memoria” dokumentua.
- “1.2. Gehieneko eta gutxieneko hirigintza-eraikigarritasuna arautzeko estandarrak betetzen direla eta Plan Orokorra indarreko lurralde-plangintzara egokitzen dela justifikatzeko memoria” dokumentua.
- “1.3. Genero-inpaktuaren ebaluazioa” dokumentua.
- “1.4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa” dokumentua.
- “1.5. Ingurumen-ebaluzio estrategikoa, Azterketa Akustikoa eta Energia Jasangarritasunaren Azterketa” dokumentua

* **“2. HIRIGINTZA ARAUAK” dokumentua.**

* **“3. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK” dokumentua.**

* **“4. BIDERAGARRITASUN ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOA” dokumentua.**

- “4.1. Ekonomia Bideragarritasuneko azterlana” dokumentua.
- “4.2. Ekonomia Jasangarritasuneko azterketa” dokumentua.

* **“5. PLANOAK” dokumentua.**

* **“6. EGIKARITZE LABURPENA” dokumentua.**

HIRU ARTXIBO INFORMATIKOTAN AURKEZTEN DA, HONAKO EDUKI HONEKIN:

POA. Garmendialde _ I. TESTUA. – Dokumentu guztiak, “1.5. dok. IAE” eta “5. dok. Planoak” izan ezik.

POA. Garmendialde _ II. TESTUA. – “1.5. dokumentua. IAE”

POA. Garmendialde _ PLANOAK. – “5. dokumentua. Planoak”

“1. MEMORIA” dokumentua

**“1.1. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA HORREN EGIKARITZEA
JUSTIFIKATZEKO MEMORIA”**

AURKIBIDEA

I.-	Dokumentuaren aurrekariak eta xedea. Izapidetzea.	1
II.-	Dokumentuaren eremua.	2
III.-	Dokumentua egiteko esparru orokorra.	3
IV.-	Dokumentuaren eduki materiala eta formala. Horien zehaztapenen maila.	7
V.-	Eremuaren egungo egoera. Partzelak.	8
VI.-	Hirigintza-aurrekariak eta indarreko hirigintza-araubidea.	8
VII.-	Esku hartzeko helburu eta irizpide orokorrak. Plan Orokorraren aldaketaren justifikazioa.	9
VIII.-	Planteatutako antolamendu-alternatibak. Egokia hautatzea.	9
IX.-	Hirigintza-antolamenduko proposamena.	12
X.-	Eraginpeko lurren hirigintza-sailkapena eta -kategorizazioa.	18
XI.-	Hirigintza egikaritzeko baldintzak.	19
XII.-	Planteatutako proposamenen bideragarritasuna.	19
XIII.-	Ingurumen-ebaluazio estrategikoa, inpaktu akustikoaren azterketa eta energia-jasangarritasunaren azterketa.	19
XIV.-	Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa.	21
XV.-	Genero-inpaktuaren ebaluazioa.	21
XVI.-	Herritarren parte-hartzea.	21
XVII.-	Planteatutako aldaketen zerrenda.	23
XVIII.-	Plana indarreko legerian eta indarreko lurralde-plangintzan ezarritako irizpideetara egokitze justifikazioa.	24
XXI.-	Programazioa.	27
XX.-	Proposamenen laburpena.	28

ERANSKINAK

- 1.- Ingurumen Organoak egindako irismeneko dokumentua (2022ko urriak 7)
- 2.- Prozedura azaltzeko eta zabaltzeko liburuxka.
- 3.- 2012ko abenduaren 22an herritarrek parte hartutako saioaren akta.
- 4.- Behar adina ur-baliabide eta saneamendu-sare egoteari buruzko txostena.
- 5.- Azpeitiko 2013ko HAPOko Garmendialde eremuaren Hirigintza Arau Partikularra.
- 6.- 2022ko abuztuaren 12ko txostena, Gipuzkoako Ur Kontsortzioarena, ur-baliabideen nahikotasunari eta saneamendu publikoari buruzkoa.
- 7.- Irigarritasuna sustatzeko indarreko araudia betetzearen justifikazioa.
- 8.- Hirigintza-proposamenak. Taulak.

I.- DOKUMENTUAREN AURREKARIAK ETA XEDEA. IZAPIDETZEA.

Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (aurrerantzean HAPO), Udalak 2013ko irailaren 17ko osoko bilkuran behin betiko onartu zuenak, udalerrian indarrean dagoen hirigintza-araubidea zehazten du eta, bereziki, adinekoentzako ostatu-premiei eta babes publikoko etxebizitza-premiei eman beharreko erantzunaren inguruan egindako udal-plangintza berriari erantzuteko xedeetarako hura aldatzeko proposamen honen xede den eremuan.

Hala, indarreko HAPO aldatzea proposatu du Udalak, "San Martín" 2.3. JZeau aurreikusitako ekipamendu-erabilera "Perdillegi" 2.2 azpierzemura lekualdatzeko eta, aldi berean, "Perdillegi" 2.2 azpierzemuan aurreikusitako bizitegi-erabilera "San Martín" 2.3. JZra lekualdatzeko xede bikoitzarekin.

Perdillegin adinekoentzako egoitza berri bat antolatzea aurreikusten da eta, bertan, leku gehiago izango da eta uholde-arriskuari aurre egiteko segurtasun-baldintza hobek izango dira, adineko gero eta jende gehiago dagoela eta biztanleek gero eta urte gehiago harrapatzen dituztela ikusita, egoitza-eredu berri bati eta egoitza horrentzako edukiera handiago bati erantzuna emateko Udalak hartutako erabakiarekin bat etorritik.

Ekipamendu berria martxan jarri ondoren, San Martinen esku hartu ahal izango da eta bizitegi-garapen bat sustatu. Ibaier ibaiaren ertzeko pasealeku bat ere egingo da eta urbanizazio berriaren sestrak doitu ahal izango dira uholde-arriskua murrizteko xedez.

Hori guztia bat dator aplikatu beharreko Plan Hidrologikoan ezarritakoarekin, eta Uraren Euskal Agentziarekin (URA) koordinatuta eta, San Martin egoitzaren aurrean, Ibaier ibaiaren eskuinaldean sustatzen den antolamenduekin planteatzen da.

Bi azpierzemuak udalerriko hirigunean daude, erdigunean; I.1. planoan identifikatu dira horien kokapena, kokalekua eta mugapena. 13.215 m²-ko azalera osatzen dute, hiri-lur gisa sailkatu dena.

Ekimena Udalak xede horretarako hartutako erabakiarekin bat dator eta, testuinguru horretan, Udalbatzak Herritarren Partaidetza Programa ere onartu zuen 2021eko abenduaren 2ko bilkuran.

Prozedura hasi eta egoera egiaztatu ondoren, izapidetzeko lehen fasean, planaren zirriborroa eta hasierako dokumentu estrategikoa idatzi ziren, biak 2022ko ekainean. Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedurari hasiera emateko eskaera egiteko gauzatu ziren bi zirriborroak.

Ingurumen Organoaren aurrean izapidetu ondoren, organo horrek memoria honetako 1. Eranskinean jasotako irismeneko dokumentua egin zuen 2022ko urriaren 7an. Agiri horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura-sailek testuinguru horretan egindako txostenak ere jaso dira. Horiek guztiak kontuan hartu dira proposamena zehazteko orduan.

Zirriborroak, bestalde, erreferentzia gisa balio izan du Udalak aurretiazko parte-hartze publikoko prozesu bati ekiteko aipatutako Herritarren Partaidetzarako Programan aurreikusitakoaren arabera.

Aurretiazko prozesu horretan honako ekimen hauek aipatu behar dira:

- Prozesuari buruzko liburuxka informatzailea egitea eta argitaratzea (2. Eranskinean dago)
- 2022ko abenduaren 12an ekimenari buruzko (3. eranskinean dago akta) hitzaldi-eztabaidarako deialdia.

Planaren zirriborroak proposamena udal-zerbitzuekin egiaztatzeko eta zeharkako ikuspegiak txertatzeko ere balio izan du.

Halaber, proposatzen den guztia ezartzeko behar adinako ur-baliabideak eta saneamendu-sarea daudela justifikatzen duen nahitaezko txostena dago. Txostena 4. eranskinean jaso da.

Horren guztiaren ondorioz, Udalak jarraitu beharreko irizpideak finkatu ditu eta, dokumentu honetan jasotako soluzioak, Udalaren osoko bilkurak hasierako onespena eman eta jendaurrean jarri ondoren, erantzuna emango die irizpide haiei.

Dokumentu hau esparru horretan egin da eta arestian aipatutako bi azpieremuetarako ezarritako hirigintza-araubidea aldatzea da bere xedea, lehen aipatutako udal-helburuari erantzuna eman ahal izateko.

Sinatzen duen Udalaren aginduari erantzunez egin da, dagokion lehiaketaren ondorioz.

II.- DOKUMENTUAREN EREMUA.

Plan honek eta bere proposamenek eragina dute I.1 eta I.2 planoetan identifikatutako eremuan. Bat dator aipatutako bi azpieremuekin.

Hala, “Perdillegi” 2.2 eta “San Martín” 2.3 JZ azpieremuak Azpeitiko hirigunearen ondoan dagoen eta udalerriko “zabalgunea” osatzen duen Garmendialde eremuan daude. Elkarrengandik oso hurbil daude, 300 metro inguruko distantzia baitago batetik bestera.

“Perdillegi” 2.2 azpieremua Urola ibaiaren ibilgutik hurbil dago. Garmendipe, Jose de Artetxe eta Perdillegi kaleekin eta Azpeitiko Lehen Hezkuntzako Institutuko partzelarekin egiten du muga. Bertan, irakaskuntza-erabilerak hartzen dituzten bi eraikin daude, bai eta aire zabalean ibilgailuak eta karabanak aparkatzeko azalera ere. Hiri-garapenaren ondorioz ia erabat artifizializatutako eta iragazgaiztatutako lurzorua da. 7.125 m²ko azalera du eta haren mugak I.1 eta I.2 planoan ageri dira. Lehendik dagoen eraikina ez dator bat indarreko HAPOn harentzako aurreikusitako xedearekin.

“San Martín” 2.3 JZ azpieremuak Ibaieder ibaiarekin eta Harzubia eta San Martin kaleekin egiten du muga, eta mugakide du 2.1 Zezen plaza azpieremua ere. Bertan, ekipamendu-erabilerako eraikinak daude, zati batean herriko zaharren egoitzak okupatutakoak eta, beste batean, behin-behineko kultura- eta irakaskuntza-erabilerakoek okupatutakoak. Lurzoru artifizializatua da eta lorategi-eremu txiki bat du. Ibaieder ibaiaren aurrealde osoa zuzkidura-eraikin batek okupatzen du gaur egun. 6.090 m²-ko azalera du eta haren mugak I.1 eta I.2 planoetan ageri dira. Ondare eraikiak indarreko HAPOn harentzako aurreikusitako ekipamendu-erabilerak du. Lehendik dauden eraikin batzuek ez dituzte betetzen Ibaieder ibaiarekiko gaur egun eskatzen diren distantziak.

Bi azpieremuen egungo kokapena I.3. planoan ageri da grafikoki, eta 2020. urtean hartutako lekuaren ortofoto bati dagokiona da. Biak 80 eta 90 m-ko koten artean daude, Urola eta Ibaieder ibaiak elkartzen diren tokian.

Lekuaren egungo egoera, aldi berean idatzitako hasierako agiri estrategikoan xehetasunez deskribatzen dena, bat dator lurralde oso antropizatuarekin, eta hari lotzen gatzaizkio bere ezagutzarik zehatzenaren ondorioetarako.

Gaur egun, landaredi naturala ia desagertuta duen lurralde bati dagokio eremua, eta ez dago nekazaritza-erabileraren domeinurik, aipatutako I.3. planoan ageri den bezala. Bi ingurune urbanizatuak eta eraikiak dira.

III.- DOKUMENTUA EGITEKO ESPARRU OROKORRA.

1.- Erreferentziazko legezko xedapen orokorrak.

Eraginpeko arloetan eragina duten eta indarrean dagoen legezko xedapenek osatzen duten lege-esparruan egin da HAPOren Aldaketa hau.

Horietatik guztietatik, eta besteei garrantzia kentzeko asmorik gabe, arreta berezia merezi dute honako hauek:

* Lurralde-, hirigintza- eta/edo lurzoru-xedapenak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan sustatu direnak eta indarrean daudenak:
 - . Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa (2/2006 Legea), honako hauen ondoriozko aldaketekin: 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza-jarduerak sortutako gainbalioetan komunitateak duen parte-hartzea aldatzen duena (11/2008 Legea); Etxebizitzaren Legea, 2015eko ekainaren 18koa (3/2015 Legea); 2/2014 Legea, urriaren 2koa.
 - . Premiazko neurrien dekretua, 2008ko ekainaren 3koa, aurreko Legea garatzeko sustatutakoa (105/2008 Dekretua) eta 123/2012 Dekretuak partzialki indargabetua.
 - . 2012ko uztailaren 3ko Dekretua, hirigintza-estandarrei buruzkoa (123/2012 Dekretua).
 - . 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak.
- Administrazio zentralak sustatu eta EAEn indarrean daudenak:
 - . Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina, 2015eko urriaren 30eko Legegintzako Errege Dekretuaren bidez (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua) onartua¹
 - . Lurzoru Legearen balorazioen erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa (1492/2011 Errege Dekretua).

¹ Aipatutako 7/2015 legegintzako Errege Dekretua partzialki indargabetu zen Konstituzio Auzitegiaren 2017ko abenduaren 14ko epaiaren bidez.

-
- * Beste arlo batzuetako indarreko xedapenak.
- Errepide-arloko indarreko xedapenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen 1989ko maiatzaren 30eko legea, geroztik hainbat aldiz aldatu edota osatutakoa, eta 2006ko ekainaren 6ko Gipuzkoako Errepideen Foru Araua barne, besteak beste.
 - Irisgarritasuna sustatzeko legea, 1997ko abenduaren 4koa, eta hura garatzeko sustatutako xedapenak (besteak beste, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituenak).
 - Ingurumen-arloan indarrean dauden xedapenak eta hirigintza-plangintzaren ingurumen-ebaluazioa:
 - . 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketaari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
 - . 10/2021, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
 - . 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
 - . 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena.
 - Zarata-arloko indarreko xedapenak:
 - . Zarataren Legea, 2003ko azaroaren 17koa.
 - . 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretuak, giroko zarata ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoa lehena eta soinu-zonakatzeari, kalitatezko helburuei eta soinu-igorpenei buruzkoa bigarrena.
 - . 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa (4/2005 Legea) eta 2007ko martxoaren 22ko Legea, gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunerakoa (3/2007 Legea).
 - Uren Legea, 2006ko ekainaren 23koa.
 - Aireko segurtasun eta zortasun arloan: Aireko Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea; Zortasun Aeronautikoei buruzko otsailaren 24ko 584/72 Dekretua, abuztuaren 19ko 1189/2011 Dekretuak eta apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatua.
 - Telekomunikazioen 9/2014 Lege Orokorra, 2014ko maiatzaren 9koa.
 - 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babesteari, kudeatzeari eta antolatzeari buruzkoa.
 - Lurzoruaren kutsaduraren arloan indarrean dauden xedapenak:
 - . 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoruen kutsadura prebenitu eta zuzentzekoa.
 - . 165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, kutsagarriak izan litezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.

- . 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren bidez garatutakoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 10/2019 Legea, ekainaren 27koa, Establezimendu komertzial handien lurralde antolamenduari buruzkoa.
- Eraikuntza-arloko indarreko xedapenak, 1999ko azaroaren 5eko Eraikuntza Antolatzeko Legea eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa barne.
- Etxebizitza-arloan indarrean dauden beste xedapen batzuk, besteak beste, babes ofizialeko etxebizitzak eta udal-etxebizitza tasatuak arautzen dituztenak, babes ofizialeko etxebizitzak diseinatzeko ordenantzak, etab.
- * Indarrean dauden lurralde-antolamenduko tresnak:
 - Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (Betiko O: 2019ko uztailak 30).
 - Urola Kostako eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziala, 2006. urtean behin betiko onetsia, eta haren aldaketak, 2009an eta 2018an onartuak.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, isurialde kantauriarra (415/1998 Dekretua), eta onartutako aldaketak.
- * Beste xedapen, plan eta dokumentu batzuk, honako hauek barne: Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020; EcoEuskadi 2020; EAEko Ingurumeneko III. Esparru Programa 2010; Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (urtarrilaren 8ko 1/2016 ED); Euskadiko Klima Aldaketaren Estrategia 2050; Bultzatu Hiri Agenda 2050; eta abar.
- * Azpeitia 2030 Plan Estrategikoa.

2.- Indarreko hirigintza-plangintza eta bere garapenean sustatutako dokumentuak.

Erreferentziatzeko dokumentua, 2013. urtekoa, Azpeitiko HAPO da.

HAPO horretan aldaketa honen xede den eremuan gaur egun indarrean dagoen lurzoruerregimena arautzen da. 5. eranskinean, San Martin eta Perdillegi azpierrekuak kokatuta dauden Garmendialde hirigintza-eremuari dagokion HAPO horretako Hirigintza Arau Partikularra dago.

Orain arte ez da izapidetu HAPOko garapen-antolamenduko dokumenturik dokumentu honen xede diren azpierrekuak dagokienez.

Hala ere, Udalak duela gutxi sustatu du lehen aipatu den Azpeitia 2030 Plan Estrategikoa. Plan horretan, besteak beste, bi kontu hauek planteatu dira:

Lehenengoak adineko pertsonentzako zerbitzuen eskaintza egokitu eta zabaltzeko premiaren berariazko aipamena egiten du.



Azpeitiko gizarte-zerbitzuen arloan planteatzen diren erronkak atalka tratatzeko beharra dagoen arren, ezin daiteke ahaztu ikuspegi bateratua jarraitzen duen gizarte-zerbitzuen politika integrala garatzea dela erronka espezifikoak era egokian aurrera eramatea ahalbideratuko duen gakoa. Zentzu horretan, jada burutu den hausnarketa gogoan izatea eta hura etengabe (sortzen diren beharrezko arabera) berregokitzeko gaitasuna lantzea presente izan beharreko elementuak dira.

1.- Adinekoen beharretara egokitutako gizarte-zerbitzuak eta -baliabideak (bilakaera demografikoa)

Prestazioen eta arretaren maila handia da. Besteak beste, kontuan hartzen dira dagoeneko bai bilakaera demografikoa eta bai emakumeek zaharkitutako biztanleriaren gainean duten pisu gero eta handiagoa. Hala ere, bilakaera demografiko horrek hainbat ekimen eskatzen ditu udalerrian:

- Adinekoen arretarako plaza-kopurua egokitzea. Plaza gehiago sortu eta dauden plazak kudeatzeko ereduak aldatzea, ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko. Horretarako, beharrezkoa da Foru Aldundiarekin dagoen lankidetzaren indartzea, besteak beste, egoitza plaza berriak sortzeko.
- Tutoretzapeko etxebizitzetako plaza-kopurua handitzea, dagoen eskariari erantzuteko. Horri esker, dauden plazak arloka banatu ahal izango dira, sortzen diren premien arabera.
- Nahitaezkoa da hirugarren adineko eta mendeko herritarren jarraipena egiteko sistema egituratua ezartzea. Horren oinarria izan daiteke lanbide-heziketako zentroekin lankidetzaren sistema bat edo gizarte-zerbitzuekin elkar hartuta jardungo duten boluntarioak aktibatzearen eskema bat.
- Zahartze goiztiarraren ondorio kaltegarrienak prebenitzeko jardueraren eskema bat abian jartzea: kirolak, irakurketa, gizarte-harremanak sustatzea, kultura- eta gizarte-erabileren integratzea. Pertsonen autonomia ahalik eta gehien luzatzea ekar dezaketen bitartekoetan eta baliabideetan inbertitzea da gakoa, mendekotasun egoera beranduago eta era hobeto azaldu dadin. Alde horretatik, garrantzitsua da eguneko unitatearekin jarraitzea eta ahal den neurrian zerbitzua indartzea.
- Etxeko zaintza aitortu eta alde publikotik erregularizatzea. Lehenik eta behin, errealitatearen benetako pisua ezagutzeko udalerrir mailako azterketa burutu beharko litzateke. Horrela zerbitzuaren onuradunen eta emaleen zentsua osatuko litzateke, lan-baldintzen errealitatea ere argitara ekarri. Hortik abiatuta, egoerak erregularizatu eta lan-baldintza duinak bermatzeko neurri espezifikoak hartu beharko lirateke (lan-orduak, hoberiak, etenaldiak, homologazioa, formakuntza...).

Bestalde, egindako azterketek adierazten dute etxebizitza-premia txikiagoa dela gaur egun indarreko HAPOn aurreikusitakoa baino eta, horregatik, ondorioztatu daiteke aurreikusitako eskaintza murrizteak pertzepzio berri horri erantzun gaitasuneko liokeela.

Plan Estrategikoa 275 etxebizitza berri baino gutxiagoko eskaera hartzen du kontuan.

IV.- PROIEKTUAREN EDUKI MATERIALA ETA FORMALA. HORIEN ZEHAZTAPENEN MAILA.

Plan honen edukia indarreko hirigintza-legerian xedatutakora egokitzen da (2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko 103. artikulua, 62.aren eta abarrekin lotutakoa), eta VII. epigrafean azaldutako helburuak lortzeko behar diren aurreikuspenak jasotzen dituen.

Hain zuzen ere, aurreikuspen horiek dokumentu hauetan txertatuta daude:

- * "1. Memoria" dokumentua.
 - "1.1. Hirigintza-antolamendua eta horren egikaritzea justifikatzeko memoria" dokumentua.
 - "1.2. Gehieneko eta gutxieneko hirigintza-eraikigarritasuna arautzeko estandarrak betetzen direla eta Plan Orokorra indarreko lurralde-plangintzara egokitzen dela justifikatzeko memoria" dokumentua.
 - "1.3. Genero-inpaktuaren ebaluazioa" dokumentua.
 - "1.4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa" dokumentua.
 - "1.5. Ingurumen-ebaluazio estrategikoa" dokumentua.
Zaritari buruzko azterketa eta energia-jasangarritasuneko azterketa ditu.
- * "2. Hirigintza Arauak" dokumentua:
- * "3. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK" dokumentua.
- * "4. Bideragarritasun-azterketa eta jasangarritasun ekonomikoa".
- * "5. Planoak" dokumentua.
- * "6. Egikaritze Laburpena" dokumentua.

Dokumentu horien eta euren proposamenen izaera informatzailea, interpretatzailea eta/edo arauemailea eta horien arau-maila bat datoz haientzat indarreko legerian (2006ko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko 54., 56. artikulua, etab.) eta proiektu honetako "2. Hirigintza Arauak" dokumentuan xedatutakoarekin.

Proiektu honek Perdillegi eremuaren antolamendu xehatua zehazteak justifikatzen du beharrezkoa dela izaera horretako planei dagokien "3. Egikaritzapena antolatzeke eta kudeatzeko jarraibideak" dokumentua bertan txertatzea.

V.- EREMUAREN EGUNGO EGOERA. PARTZELAK.1.- Egungo egoeraren deskribapen orokorra.

HAPOren Aldaketaren xede den eremua Azpeitiko udalerriaren erdigunean dago. 559.360/4.781.000 eta 559.810/4.781.400 koordenaden artean kokatuta dago.

San Martinen, azpierrearen sestra 81 m eta 83 m koten artean dago, gutxi gorabehera, eta Perdillegin 84 m eta 95 m koten artean.

13.215 m²-ko azalera du, 7.125 m² Perdillegi azpierreuari dagozkionak eta 6.090 m² San Martin azpierreuari dagozkionak.

Bi azpierreuek lehendik dauden eraikinak dituzte, arestian aipatu direnak. Biek dute urbanizazio egikaritua, eta baldintza egokiak dituzte irisgarritasun unibertsalaren arloan.

Hirigunean integratuta dagoenez, eremuak hiri-zerbitzuak ditu (ur-hornidura, saneamendua, elektrizitatea, telekomunikazioak, etab.).

Eremuaren jabetza osoa publikoa da. Partzelak ondorengo taulan deskribatutakoak dira.

EGUNGO PARTZELAK

PARTZELA (zk.)	AZALERA -m²(z)
Perdillegi	5.071
San Martin	5.262
Bide publikoak Perdillegin	2.054
Bide publikoak San Martinen	242
Ibaieder ibaia	586

VI. HIRIGINTZA-AURREKARIAK ETA INDARREKO HIRIGINTZA-ARAUDEA.

Azpeitiko HAPO da planteatzen den Aldaketaren xede den esparruan egiturazko hirigintza-araubidea ezartzeko erreferentziarako esparrua. Horrela, proposatzen den antolamenduaren xede den eremuak eragina du gaur egun hiritar gisa sailkatutako lurzoruan. Bestalde, Perdillegi azpierreua bizitegi-erabilerakotzat jotzen da, eta San Martin, ekipamendu-erabilerakotzat, I.4. planoan ageri den bezala.

HAPOk San Martin azpierreuko antolamendu xehatua ere definitzen du, Perdillegiri dagokiona Plan Berezi bat izapidetzearekin lotzen badu ere, I.5. planoan adierazten den bezala.

Gaur egun, indarrean dagoen plangintzak bizitegi-garapen berri bat aurreikusten du Perdillegin, babes publikoko etxebizitzak egiteko, gehienbat erregimen tasatukoak, eta San Martin azpieroemuren zuzkidura-erabilera (adinekoen egoitza) finkatzen du, HAPOk Garmendialde eremuko hirigintza-arau partikularrean jaso eta 5. Eranskinean irudikatu den bezala. Bi azpieroemuen kalifikazio-, eraikigarritasun- eta erabilera-baldintzak definituta daude arau horretan.

VII.- ESKU HARTZEKO HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK. HAPOREN ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA.

Ondorengo helburu eta irizpideek justifikatzen dute aipatutako bi azpieroemutan indarrean dagoen hirigintza-araubidea birdoitzea eta, xede horrekin, Azpeitiko HAPoren Aldaketa puntual hau egitea.

- Adinekoentzako egoitza arloko tokiko ekipamendua berritzea eta egoera berrira egokitzea eta, aldi berean, segurtasun-baldintza hobeak eta eskaintza handiagoa bideratzea. Hori dela eta, Perdillegi azpieroemua aukeratu da helburu horri erantzuteko.
- San Martinen babes publikoko etxebizitza berri baten eskaintza antolatzea. Eskaintza hori, gutxienez, HAPOn kalkulaturako gutxieneko balantzea bermatzen duen eskaintzaren baliokidea izango da. Horren arabera, BPESen (babes publikoko etxebizitza sozialak) 281,20 m²(s) beharko lirateke Perdillegin eta BPETen (babes publikoko etxebizitza tasatuak) 6.693,20 m²(s), gutxienez. Era berean, Ibaiederren ezkeraldeko pasealeku gisa publikorako berreskuratzea ere jasota dago proposamenean.
- Azpeitia 2030 Plan Estrategikoaren zehaztapenak kontuan hartzea.

Azaldutako arrazoiek justifikatzen dute eremuan indarrean dagoen hirigintza-araubidea birdoitzea eta Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko proposamena egitea.

VIII.- PLANTEATUTAKO ANTOLAMENDU-ALTERNATIBAK. EGOKIA HAUTATZEA.

VII. epigrafean azaldutako helburu eta irizpideen arabera, prozesuaren testuinguruan honako hiru antolamendu-alternatiba hauek planteatu dira:


- “0” alternatiba:

Bat dator San Martin eremuan esku ez hartzeko alternatibarekin.

Horrek esan nahi du indarreko HAPOk proposatzen duen guztia egikaritzea edo ez egikaritzea eta, ondorioz, bi azpieroemuen egungo egoerari eustea.

Horrela, San Martinen finkatu egingo da zuzkidura-erabilera egungo baldintzetan eta, ondorioz, ez zaio erantzungo uholde-arriskua minimizatzeke udalaren helburuari.

Aukera hori, ondorengo grafikoetan ageri dena, baztertu egin da Udalaren helburuari ez diolako erantzuten.



- “1” alternatiba:

Zahar-egoitza Perdillegira eramatea du helburu, horretarako azpiero hori osorik erabiliz. Zuzkidura-erabilera baldintza egokietan hartzeko aukera ematen du eta, aldi berean, egin nahi den handitzea ahalbidetzen du eta epe luzeagorako aukerak ere ematen ditu.

Bestalde, zuzkidura-erabilera Perdillegira lekualdatu ondoren, San Martinera lekualdatu beharko da HAPOn azken azpiero horretan aurreikusitako babes publikoko etxebizitzaren bizitegi-garapena. San Martinen ezaugarriek gaur egun HAPOk aurreikusitakoak baino intentsitate txikiagoko bizitegi-garapen berrirako aukera ematen dute.

Planteatutako helburu bikoitzari erantzuten dion alternatiba da. Horretarako, dimentsio bereziko zuzkidura-partzela bat eskaintzen du, baina HAPOk hasiera batean aurreikusitako bizitegi-eraikigarritasuna murriztuz.

Honako grafiko hauetan irudikatzen da.



- “2” alternatiba:

Zahar-egoitza Perdillegira lekualdatzea du helburu eta, horretarako, azpiero horren zati bat baino ez du erabiliko. Zuzkidura-erabilera baldintza egokietan hartzeko aukera ematen du eta, aldi berean, HAPOn aurreikusitako bizitegi-garapen berriaren zati bat haren beste zatian antola daiteke.

Zuzkidura-erabilera Perdillegira lekualdatu ondoren, HAPOn azken azpiero horretan aurreikusitako babes publikoko etxebizitzaren bizitegi-garapenaren gainerakoa San Martinera lekualdatzea eskatzen du.

Planteatutako helburu bikoitzari erantzuten dion alternatiba da, aurreikusitako bizitegi-eraikigarritasunari eusten diona baina zuzkidura-partzelaren tamaina mugatzen duena.

Honako grafiko hauetan irudikatzen da.



Dokumentua izapidetzeko lehen fasearen ondorioz eta jasotako ekarpenak, egindako dokumentuak eta txostenak eta planteatutako erabakiak kontuan hartuta, Udalak 1. Alternatiba hautatu du. Beraz, Perdillegi oso-osorik izango da adinekoentzako ekipamendu-zuzkiduratarako.

Horrekin batera, San Martin azpierzemua batez ere bizitegi-erabilerara bideratzea proposatzen da. Hala, Azpeitia 2030 Plan Estrategikoaren arabera, indarreko HAPOk Perdillegirako proposatutakoa baino intentsitate txikiagoko bizitegi-garapena proposatzen da, gutxienez, BPESen (babes publikoko etxebizitza sozialak) 281,20 m²(s) eta BPETen (babes publikoko etxebizitza tasatuak) 6.693,20 m²(s) hartuko dituen.

IX.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUKO PROPOSAMENA.

VII. epigrafean azaldutako helburu eta irizpideei eta VIII. epigrafean aztertutako antolamendu-alternatibei erreparatuta, indarrean dagoen hirigintza-plangintza aldatzea planteatzen da ondorengo irismenarekin eta jarraian deskribatuko den soluzioaren arabera.

Horrela, Garmendialdeko eremuaren eta behin eta berriz aipatzen diren azpierzemuen mugapena lehen bezala uztea proposatzen da, eta dokumentuaren xede den lurzoruaren sailkapena hiri-lurzoru gisa finkatzea (ikus I.1 planoa).

Bestalde, bi azpierzemuen kalifikazio globala aldatzea planteatzen da. Hala, azpierzemuko bide-sistema orokorrak eta ibilguak alde batera utzita, San Martinen 5.262 m²-ko bizitegitarako eremu globala ateratzen da (gaur egungo ekipamendu-partzela); Perdillegi, bestalde, komunitate-ekipamenduko eremu bihurtuko da (5.071 m²), eta bide-sistema orokorra finkatu egungo da (ibilgailuak eta bizikletak) (ikus II.2 planoa). San Martinen garapenetik hiri-lurzoruko bizitegi-

eremu bati dagozkion zuzkidura publikoak aterako direla kontuan hartuta, horien azalerari ez dio eragingo. Bestalde, Perdillegin aterako den partzela San Martinen antolamendu xehatua egiten denean aterako den partzela garbia baino handiagoa da.

Hala, batetik, Perdillegin antolatuko den ekipamendu-partzela berrirako 13.000 m²(s)-ko eraikigarritasun fisikoa ezarri da Jose Artetxe kaleko sestra gainean. Indarreko HAPOk ekipamendu publikoko partzeletarako oro har baimendutako sestrarepeko eraikigarritasuna gehitu behar zaio horri.

Bestetik, San Martinen, kontuan izandako antolamendu-alternatibak aztertzearen ondorioz, horien adibide batzuk ageri dira ondorengo grafikoetan, sestra gaineko 9.452 m²(s)-ko hirigintza-eraikigarritasuna antolatu da bizitegi-erabileretarako (281,20 m²(s) babes publikoko etxebizitza sozialetarako eta 8.920,80 m²(s) babes publikoko etxebizitza tasatuetarako) eta 250 m²(s) merkataritza-lokaletarako eta hirugarren sektoreko erabileretarako; indarreko HAPOk bizitegi-partzeletarako oro har baimentzen duen sestra azpiko eraikigarritasuna gehitu behar zaio horri.


San Martinen antolatutako hirigintza-eraikigarritasuna (9.452 m²(s)) indarreko plangintzan Perdillegirako aurreikusitakoa (13.000 m²(s)) baino txikiagoa da. Hala ere, San Martingo hirigintza-eraikigarritasunak aise konpontzen du Perdillegin sortzen zen babes publikoko etxebizitzaren defizita (281,20 m²(s) babes publikoko etxebizitza sozialetarako eta 6.693,20 m²(s) babes publikoko etxebizitza tasatuetarako).

San Martinerako proposatutako aldaketak Ibaiederren ibilguaren aldameneko zuzkidura-eraikina eraistea ahalbidetzen du, eta horrela planteatzen da. Horrek, proposatzen den bezala, ibaiertzaren ezker aldea lurzoru publiko gisa berreskuratzea ahalbidetzen du. Hala, helburu hori lortzeko, eraikin berria Ibaieder ibaiaren ibilgutik gutxienez 15 metrora antolatzea planteatzen da. Horrek aukera emango du ezponda birnaturalizatua antolatzeko ibaiertzeko pasealekuarekin. Xede horrekin egindako proposamena aldaezin gisa aurkezten da ondorego irudietan.

Irudi horiek bat datoz balizko hiru antolamendu-proposamenekin. Horien behin betiko soluzioa idatzi beharreko Plan Berezian zehaztuko da. Hala ere, proposatutako guztiaren irismena grafikoki irudikatzeko balio dute eta, bereziki, eremuan proposatutako hirigintza-eraikigarritasuna inguruneke eraikinen baliokidea den beheko solairua eta bost solairuko profilararekin eta ibaiertzerako atera daitekeen tratamenduarekin integratzeko. Hala, azken hori 500 urteko birgertatze-aldiari dagokion uholde-arriskuko 81,00 kotara iristen den pasealekuarekin eratzea proposatzen da, eta leku horren eta ingurunearen uholde-arriskua minimizatzen duen 84,00ko kotara iristen den pasealekuarekin.



San Martinera 1. zenbakiko antolamendu-proposamen argigarria
(bloke linealak, horietako bat lehendik dagoen ageriko mehelinari atxikita)



San Martinera 2. zenbakiko antolamendu-proposamen argigarria
(ibaira ematen duen etxe-uharte irekia, alde bat lehendik dagoen ageriko mehelinari atxikita)



San Martinerako 3. zenbakiko antolamendu-proposamen argigarria
(Harzubira ematen duen etxe-uharte irekia, alde bat lehendik dagoen ageriko mehelinari atxikita)

Uholde-arriskua ahalik eta txikiena izan dadin, hiru proposamenek 84 metroko kotan egindako plataforma antolatu dute. Plataforma horretatik iritsiko da etxebizitzetako ezkaratzetara eta horiek sestra horren gainetik kokatzea aurreikusten da. Beheko solairuan, lokalak eta etxebizitzak antolatzea aurreikusten da. Horien ezarpen-kuota uholde-kota baino gorago egongo da, antolamendua xehatuko duen Plan Berezia izapidetzen den unean aplikatu beharreko Plan Hidrologikoak xedatzen duenaren arabera. Plataforma kaleekin (1. proposamena) edo plazekin (2. eta 3. proposamenak) ebatziko da.

1. proposamenean, ekialdea-mendebaldea orientazioa duten hiru bloke lerrokatu antolatuko dira, ibaiarekiko eta Harzubia kalearekiko perpendikularrean.

2. eta 3. proposamenetan, bestalde, etxe-uharte ireki bat antolatuko da ibaira begira edo Harzubia kalera begira, plaza bat eratuz.

Hiru soluzioek aurreikusitako sestra gaineko eraikuntza-profila hartzen dute: beheko solairua, lau solairu eta atikoa.

Denetan aurreikusten da sestra azpian garajeak antolatzea aplikazio-estandarrari erantzuna emanaz. Haien antolamendu zehatza, sarbideen antolaketa, etab. nahitaezko Plan Berezian ebatziko dira.

Halaber, denek bermatzen dute ibaiaren aurrealdea espazio publiko birnaturalizatu gisa eta San Martin parean Ibaider ibaiaren ezker aldearen continuuma berreskuratzea eta ingurumen eta paisaia-ikuspegitik birkalifikatzea.

Dokumentu honek, bestalde, Plan Berezi bat formulatzearekin lotzen du San Martin eremuko antolamendu xehatua. Hala, aurreko antolamenduak izaera argigarriarekin soilik erakusten dira; Perdillegin, aldiz, Udalak behar bezala garatzen duenean leku horretan adinekoentzako egoitza berria ezartzeko proposamena, antolamendu xehatua zehazten du.

Berrikuntza-zentroa eta zaintzadun ostatua da. Aldi berean, ideia-azterketa bat ari da garatzen, dagokion proiektutik ateratzen denaren kalterik gabe, balizko proposamenaren irudi adierazgarria emango duena.



II.3 planoan grafikoki zehaztu da Perdillegirako proposatutako antolamendu xehatua. 4.416 m²-ko ekipamendu-partzela, bideetarako 2.054 m²-ko azalera eta espazio libre berrietara bideratutako 655 m²-ko azalera atera dira.

Horren ondorioz, dokumentuak eraikuntza-, erabilera- eta jabari-baldintzak zehaztuko ditu Perdillegin aterako den zuzkidura-partzela publikoan (ikus II.4 plano). Eraikinak, Jose Artetxe kaletik beheko solairua eta beste bost solairuko profila izatea aurreikusten da.

Horrez gain, dokumentuak bi azpieremuak egikaritu eta kudeatzeko baldintzak zehazten ditu, proposatutako antolamendu berrira egokituz (ikus II.5 plano).

Dokumentu honetan ez da aurreikusten antolamendutik kanpo edo antolamenduarekin bat ez datorren eraikinik kalifikatzea. Hori horrela da, batetik, Perdillegin lehendik dauden ekipamendu-erakinek aurreikusitako eraikuntza-, erabilera- eta jabari-baldintzak betetzen dituztelako. Bestetik, San Martinen idatzi beharreko Plan Bereziari dagokio arlo horretan hartu beharreko erabakiak hartzea.

Perdillegin esku-hartzea jarduketa isolatua da eta zuzenean egikarituko da behar diren urbanizazio-obra osagarriak bilduko dituen eraikuntza-proiektua izapidetuz. Horiek, partzelako harguneetara eta behar diren beste hargune batzuetara mugatuko dira eta, a priori, behar diren zerbitzuak eta azpiegiturak izango dira (ikus II.6 planoak).

Beraz, antolamenduak ez du azpiegitura-obra garrantzitsurik eskatzen, San Martin azpieremuan dagokion antolamendu xehatua zehaztu ondoren ondorioztatzen den guztiaren kalterik gabe.

Aldi berean idatzitako IAEan eta aplikatu beharreko lurzoruari eta hirigintzari buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera, San Martin azpieremuan 100 zuhaitz kontserbatzea edo landatzea aurreikusten da, ahal izanez gero, Ibaieder ibaiaren ibilguaren ezker aldean lehengoratzeko testuinguruan kokatuko direnak.

Gipuzkoako Uren Kontsortzioak justifikatu eta baieztatu duen bezala, nahikoa ur-baliabide eta saneamendu-baliabide dago. Txostena 6. eranskinean jaso da.

Proposamena, halaber, eskatzen diren irisgarritasun unibertsaleko baldintzetara egokitzen da, 7. Eranskinean justifikatu den bezala. Gainera, udalerriko HAPOn eta HMJPn jasotako mugikortasun-baldintzetan txertatu da.

Proposamenak, gainera, Ibaieder ibaiaren ezker aldean lehengoratzeko eta eremuko baldintza hidraulikoak hobetzea ahalbidetuko du, San Martinen uholde-arriskua minimizatzea bultzatuz eta eremuaren antolamendua aplikatu beharreko Plan Hidrologikoan zehaztutakora egokituz, azpieremurako izapidetu beharreko Plan Bereziari zehaztutakoaren kalterik gabe. Proposatzen den antolamenduak aurreikusi beharreko eraikinaren atzerapena zaintzen du, LAParen arabera 12 metrokoa dena, LAPean ezarritako osagai hidraulikoaren III. mailako ibilguetatik (Urola eta Ibaieder) hurbil berrantolatzeke proposamena duten eremu garatuak direlako. Hala, Perdillegin Urola ibaiaren ibilgutik 20 metro baino gehiagora egongo da eraikina eta San Martinen 15 metro baino gehiagora, zehaztapena betez. Horri gehitu behar zaio adinekoen egoitza-erabilera San Martinetik Perdillegira lekualdatzeak, neurri handi batean, kolektibo zurgarri horrentzako uholde-arriskua minimizatzeari erantzuten diola. Horretarako, Perdillegiko eraikinera sartzeko sestraren kota nabarmen igotzea proposatzen du, 500 urteko birgertatze-aldirako kalkulaturako uholde-eremuaren eragina saihesteko. Osagarri gisa, San Martinen ibilguaren aurrean lerrotatutako eraikina eraistea proposatzen da, Ibaiederren ezker aldeko pasabidea berreskuratuz. Bestalde, aurreikusitako bizitegi-eraikinerako sarbidearen kota igotzea proposatzen da. Proposatutako soluzioak plan hau aipaturiko LAPera egokitzea eskatzen du. Gainera, San Martinen proposatuako erreferentzia-kota, Udalak eskatu eta Salaberria ingeniariak egindako Ibaieder eta Urola ibaien elkargunearen azterketa hidraulikoaren eguneratzean proposatutakora egokitzen da.

Proposatutako antolamenduarekin bat etorritik, bi azpieremuetako zonakatzeko akustikoa aldatuko da, II.7 planoan grafikoki irudikatzen denaren arabera.

Horrek guztiak planteatutako helburuei erantzuten die. Bai eta ingurumen- eta hizkuntza-ebaluazioko prozeduretan, genero-ikuspegiaren integrazioan eta herritarren parte-hartzearen testuinguruan planteatutakoari ere, ondorengo XIII., XIV., XV. eta XVI. epigrafeetan deskribatzen den bezala.

Beraz, aldaketak honako hau dakar:

- Bizitegi-eraikigarritasun antolatuaren 2.422 m²(s)-ko murrizketa.
- 1.126 m²(s)-ko murrizketa merkataritza-lokaletan.
- 5.071 m²-ko ekipamendu-partzela bat antolatzea, San Martinen egungo azaleraren antzekoa (5.262 m²).
- Espazio libretarako edo oinezkoentzako ibilbidetarako espazio berriak lortzea (655 m² Perdillegin, eta horiei San Martinen ateratzen direnak gehitu behar zaizkie).

X.- ERAGINPEKO LURREN HIRIGINTZA-SAILKAPENA ETA -KATEGORIZAZIOA.

Lehen aurreratu den bezala eta indarreko HAPOn zehaztu den bezala, bi azpieremuen sailkapena hiri-lurzoru gisa finkatzea proposatzen da.

Bestalde, Perdillegi eremua hiri-lurzoru finkatu gisa kategorizatzea proposatzen da; San Martinekoa, berriz, urbanizazio-gabeziagatik edo -gutxiegitasunagatik, hiri-lurzoru finkatugabe bati dagokio, eta hirigintza-eraikigarritasun handiagoa aurreikusten da bertan.

XI.- HIRIGINTZA EGIKARITZEKO BALDINTZAK.

Aurreratu den bezala, Perdillegiko esku-hartzea jarduketa isolatu bati dagokio. Ez da urbanizazio-obarrik behar, ez da aurreikusten hirigintza-eraikigarritasunik eta ondoriozko partzela zuzkiduratarakoa izango da. Hura garatzeko nahikoa izango da behar diren urbanizazio-obra osagarriak biltzen dituen eraikuntza-proiektua izapidetzea. Halaber, dagokion birpartzelazio-proiektua izapidetuko da.

San Martinen, prozesuaren jarraipenean (Plan Berezia izapidetzea, Hirigintzako Jarduketa Porograma, etab.) zehaztuko dira kontuan hartu beharreko egikaritze- eta kudeaketa-baldintzak. A priori, jarduketa integratu bat identifikatzea aurreikusten da.

Aipatu behar da, San Martin azpieremuan, proposamena egikaritzean (Plan Bereziaren behin betiko onespina) dagozkion tokiko zuzkidura publikoak aterako direla, aplikatu beharreko hirigintza-estandarren dekretuan ezarritakoaren arabera. Horrela, espazio libre berriak (landatzeko aukera ematen duten berdeguneak, Ibaiederren ezkeraldea berreskuratzea, etab.) oinezkoentzako ibilbideak, aparkalekuak eta zuzkidura publikotarako antzekoak sortuko dira.

Bestalde, San Martin azpieremua egikaritzeko, aplikatu beharreko legeriaren arabera, nahitaezkoa da Plan Berezi bat, HJP bat, birpartzelazio-proiektu bat, urbanizazio-proiektu bat eta dagozkien eraikuntza-proiektuak izapidetzea eta behin betiko onartzea.

XII.- PLANTEATUTAKO PROPOSAMENEN BIDERAGARRITASUNA.

"4. Bideragarritasuna eta jasagarritasun ekonomikoa" dokumentuan plan honetan planteatutako antolamendu proposamenaren bideragarritasuna justifikatzen da.

Dokumentu horretan jarduketaren jasagarritasun ekonomikoa ere justifikatzen da.

Beraz, horri lotzen gatzaizkio kontu horri dagokionez.

Plana egikaritzea eta urbanizazioa nahiz obra publikoa mantentzea bideragarriak direla ondoriozta daiteke. Horretarako, egin beharreko obra publikoak egikaritzeko behar diren baliabide publikoak daude.

XIII.- INGURUMEN-EBALUZIO ESTRATEGIKOA, AZTERKETA AKUSTIKOA ETA ENERGIA JASAGARRITASUNAREN AZTERKETA**1.- Ingurumen-ebaluazio estrategikoa.**

2022ko urriaren 7an, Ingurumen Organoak (Eusko Jaurlaritza) ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedura arruntari dagokion irismeneko dokumentua egin zuen. Esku artean dokumentuaren inguruan Udalak sustatutako prozedura da. Memoria honi erantsitako 1. Eranskinean irismeneko dokumentu horren kopia bat dago.

Agiri horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirola departamentuak testuinguru horretan egindako txostenak ere jaso dira.

Irismeneko dokumentuan ez dira pizten ekimena zalantzan jartzen duten alderdiak eta eragin litezkeen ingurumen-inpaktu nagusiak nabarmentzen dira egin beharreko ingurumen-azterketa estrategikoan (IAE) aztertu ahal izateko. Hala ere, aipagarriak dira uholde-arriskuaren arazoari buruzko aipamenak, dagokion erantzuna emanaz.

Hori guztia kontuan hartuta, memoria honetako VII. eta IX. epigrafeetan adierazitako erabakiak hartu dira eta plan honetako 1.5 dokumentuan jaso den IAE egin da, eta horri lotzen gatzaizkio. Dokumentu horri erantsi zaizkio Perdilegi eremuaren azterketa akustikoa, antolamendu xehatua zehazten duena, eta nahitaezko energia-jasagarritasuneko azterketa.

Aukeratutako soluzioaren ondorioz, aukeratutako 1. alternatibaren garapenean ez da eragin esanguratsurik aurreikusten ingurumenean plan honen ondorioz, planaren araudian txertatzen diren neurri babesle, konpentsatzaile eta zuzentzaileak planteatzearen kalterik gabe (2. dokumentua).

2.- Eragin akustikoaren azterketa.

EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, planak honako aurreikuspen hauek ditu, besteak beste:

- * Etorkizunean hirigintza-garapena aurreikusten zaien eremu akustikoek, hirigintza-kalifikazioa aldatzekoak barne, Inpaktu Akustikoaren Azterketa bat izan beharko dute

hirigintza- eta ingurumen-izapideak egiteko. Azterketa horretan, eremuko inpaktu akustiko orokorra aurreikusteko aukera emango duten zarata-mapak sartu beharko dira. (37. art.)

Azterketa horrek xedapen honetan ezarritako edukia izan behar du. Perdillegi azpierzemuari buruzkoa da soilik. San Martin azpierzemurako dagokion Plan Berezia izapidetzean egingo da.

Azterketa hori aldi berean egingo den ingurumen-azterketa estrategikoan (IAE) sartuko da eta, horren ondorioz, zarataren arloko plan zonala egingo da.

3.- Eremu akustikoen mugapena.

Bi azpierzemuak bizitegitarako eremu akustiko gisa kalifikatu dira eta, ondorio horietarako, adinekoren egoitzaren zuzkidura-erabilera bizitegi-erabilerarekin parekatu da, ostatu-modalitate bat dela kontuan hartuta.

Aurreikuspen horren arabera, eremuaren helburu akustikoak eremu akustiko mota horri dagozkionak dira.

II.7 planoan grafikoki irudikatu dira proposatutako antolamendu berritik ateratzen diren bizitegi-eremu akustikoak.

4.- Baliabide hidrikoen eta saneamenduko erabilgarritasuna.

Nahikoa baliabide hidriko eta saneamendukoak badirela justifikatzeko, Garmendialdeko San Martin eta Perdillegi azpierzemuetarako planteatzen den berrantolaketa zehazteko honako hurbilketa hau prestatu da.

San Martinen 86 etxebizitza berri antolatzea proposatzen da (3 babes publikoko sozialak -BPES- eta 83 babes publikoko tasatuak -BPET-), batez beste 107 m²(s) ingurukoak (80 m² erabilgarri). 9.202 m²(s)-ko hirigintza-eraikigarritasuna eragingo dute. Horri beste 250 m²(s) inguru gehitu behar zaizkio merkataritza-lokaletarako eta 4.480 m²(s) inguru garajetarako.

Perdillegin adinekoren eguneko zentro gisa eta egoitza gisa erabiltzeko partzela bat antolatu da 125 lagunentzako edukierarekin eta 13.000 m²(s)-ko eraikigarritasunarekin Jose Artetxe kaleko sestra gainean, sestra horren gainetik antola daitezkeen garajeak barne.

Ondorio horietarako etxebizitza bakoitzeko 4 laguneko okupazioa aurreikusten dela kontuan hartuta, 469 pertsona erabiltzaile ateratzen dira ((86 x 4) + 125).


Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://ust.gipuzkoa.eus?De=49810>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://ust.gipuzkoa.eus?De=49810>

7. ERANSKINA

Irigarritasuna sustatzeko indarreko araudia betetzearen justifikazioa

(Eusko Legebiltzarraren 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irigarritasuna sustatzekoa, eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irigarritasun-baldintzei buruzko Arau Teknikoei buruzkoa)

1. XEDEA

Eranskin honen xedea da irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeko 17. artikuluan agindutakoa eta Hiri Inguruneen, Espazio Publikoen, Eraikinen eta Informazio Sistemen Irisgarritasun Baldintzei buruzko Arau Teknikoei buruzko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren 6/2000 Dekretua betetzea, kontu horri buruz hartutako neurriak modu argi eta xehatua deskribatuz.

Justifikazio honek plan honi dagozkion egiturazko plangintzaren eta plangintza xehatuaren mailari dagozkion diseinu orokorreko alderdiak baino ez ditu hartzen, eta izapidetu beharreko urbanizazio-obren proiektuan eraikuntza-diseinuari dagozkion zehaztapenak bete beharko dira, Plan Orokorraren Aldaketa honen zehaztapenen garapenean formulatu beharko direnak.

2. URBANIZAZIOKO ELEMENTUEK BETETZEAREN JUSTIFIKAZIOA

2.1. BIDE, ESPALOI ETA OINEZKOENTZAKO IBILBIDEEN DISEINUA ETA TRAZADURA

Esku-hartzeak oinezkoentzako ibilbide berriak antolatzea ahalbidetuko du, oinezkoen ibilbideetarako irisgarritasun-arloan eskatzen diren baldintzetara egokitzen direnak.

Bestalde, finkatu egingo da lehendik dagoen bide-sarea, irisgarritasun-arloan eskatzen diren baldintzei erantzunez sestetan egokitzen txiki batzuk egitearen kalterik gabe.

Lekuaren baldintza topografiko egokiak direla eta, Urola eta Ibaieder ibaien elkargunean, ez da % 6ko gehieneko malda gaindituko hiri-bideetan.

2.2. APARKALEKUAK

Arloan aplikatu beharreko araudiaren arabera, planak garatzen dituen eraikuntza-proiektuetan mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuen garajeak gaituko dira, horietarako ezarritako baldintzen arabera.

Donostian, 2022ko abenduan



Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

8. ERANSKINA

Hirigintza-proposamenak. Taulak.

1.- Lurzoruaren sailkapena HAPOren Aldaketaren xede-eremuan.

LURZORU-MOTA	AZALERA 2013ko HAPOren arabera (m²)	AZALERA 2022ko HAPOren Aldaketaren arabera (m²)
HIRI-LURRA	13.215	13.215

ITURRIA: Geuk egina.

2.- Perdillegiko azpieremuaren eraikigarritasun fisikoa.

2.2 Perdillegi azpieremua Azalera - m² -	ERAIKIGARRITASUNA (Jose Artetxe kaleko sestra gainean) - m²(s)-	SESTRA GAINEKO ERAIKINEN PROFILA
7.125	13.000	B + 5

ITURRIA: Geuk egina.

3.- San Martin azpieremuaren hirigintza-eraikigarritasuna.

2.3 San Martin azpieremua Azalera - m² -	ERAIKIGARRITASUNA (sestra gainean) - m²(s)-	SESTRA GAINEKO ERAIKINEN PROFILA
6.090	9.452	B + 4 + ATIKOA

ITURRIA: Geuk egina.

“1. MEMORIA” dokumentua

**“1.2. GEHIENeko ETA GUTXIENeko HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA
ARAUTZEKO ESTANDARRAK BETETZEN DIRELA ETA PLANA
INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEN DELA
JUSTIFIKATZEKO MEMORIA”**

AURKIBIDEA

I.- Dokumentu honen xedea.	2
II.- Plana indarreko lurralde-plangintzara egokitzea.	2
III.- Hirigintza-eraikigarritasuna arautzen duten mugak betetzearen justifikazioa.	4

I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA.

Dokumentu hau 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen garapenean sustatutako 2008ko ekainaren 3ko Dekretuko "31.1.g" artikuluan ezarritakoaren arabera egin da, ondoren azalduko diren bi helburuei erantzuna emateko xedez.

Lehenengoak zerikusia du plan honetako proposamenak indarrean dagoen lurralde-plangintzan ezarritako aurreikuspenekin bat datozela justifikatzearekin.

Bigarren helburua, berriz, lotuta dago aipaturiko Legeko 77. artikuluan eta aipaturiko Dekretuko 15. artikuluan ezarritako gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasuna arautzeko mugak betetzen direla justifikatzearekin.

II.- PLANA INDARREKO LURRALDE-PLANGINTZARA EGOKITZEA.

1.- Lurralde-plangintzako indarreko tresnen zerrenda.

Honako hau da proiektu honek kontuan izan behar dituen lurralde-plangintzako indarreko tresnen zerrenda:

- * EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (Betiko O: 2019ko uztailak 30).
- * Urola Kostako eremu funtzionaleko Lurralde Zatiko Plana, 2006. urtean behin betiko onetsia, eta onartutako aldaketak (2).
- * Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana, isurialde kantauriarra (behin betiko onespina: 2013), eta onartutako aldaketak.

2.- Proiektua lurralde-antolamenduko indarreko tresna horietara egokitzearen justifikazioa.

2.1.- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

Indarrean dauden LAGek ez dute plangintza-aldaketa honen xede den eremuan berariaz aplikatu beharreko zehaztapenik.

Nolanahi ere, proposamena LAGen lurralde-eredua gidatzen duten irizpideetara egokitzen da eta, bereziki, Azpeitiko hirigunea eta bere ekipamendu-zuzkidura indartzen lagunduko du.

Bestalde, hirigintza-plangintza garatzeko idatziko diren proiektuek tratamendu arkitektoniko egokia izango dute, eta eraginkortasun-postulatuei erantzungo dien energia-kontsumoa aurreikusiko dute.

2.2.- Urola Kostako Lurralde Zatiko Plana.

Urola Kostako eremu funtzionalaren Lurralde Zatiko Planaren zehaztapenak ere ez diote heltzen udal-plangintzaren aldaketa honen xede den proposamenaren garatzen den zehaztapen-mailari.

Hala, egindako proposamenaren xedea hiri-lurzorua da, eta bi eremu trukatzeko ditu, bizitegi-eremua eta zuzkidura publikoena, LZPak aurreikusitako lurralde-ereduan eragin gabe. Zehaztu behar da ekimenak LZParen helburuekin bat datorren zuzkidura-azalera handitzea dakarrela.

Bereziki adierazten da San Martinen proposatzen den bizitegi-garapena LZPak Amuen proposatzen duenaren berehalakoa izango dela, bere garaian horren inguruan izapidetutako lehenengo aldaketa onartu ondoren.

Era berean, San Martingo esku-hartzeak onartutako LZParen bigarren aldaketan sartutako paisaia-helburuei erantzuten die, Ibaiederreko ezkeraldea birnaturalizatzea aurreikusiz.

Horrenbestez, ondoriozta daiteke proposamenaren garapena bat datorrela LZP horren helburu eta esku hartzeko irizpideekin:

2.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (isurialde kantauriarra).

LAParen arabera, Perdillegi eta San Martin azpierrekuak bat datoz berrantolatzea proposatzen den eremu garatuekin.

Era berean, hurrenez hurren horietatik hurbil dauden Urolako eta Ibaiederreko tartekak bat datoz LAPean ezarritako osagai hidraulikoaren III. mailarekin.

Horregatik, aurreikusi beharreko eraikinaren gutxieneko atzerapena, LAParen arabera, 12 metrokoa da.

Proposatutakoan ikus daitekeenez, eraikina Perdillegin dago, Urolako ubideratze zehaztutik 20 metro baino gehiagora, eta San Martinen 15 metro baino gehiagora; beraz, zehaztapen hori betetzen da.

Are gehiago, proposamenak egungo egoera hobetzen du uholde-arriskuaren aurrean.

Horiek horrela, aplikatu beharreko Plan Hidrologikoan baldintzetarako xedatutakora egokituko da eta, horretarako, adinekoen egoitza-erabilera San Martinetik Perdillegira lekualdatzea aurreikusi da, han arriskua txikiagoa delako kolektibo kalteberago horrentzat.

Bestalde, proposamenak Perdillegiko eraikinera sartzeko sestraren kota nabarmen igotzea proposatzen du, 500 urteko birgertatze-aldirako aurreikusitako uholde-orbanaren eragina saihesteko.

Osagarri gisa, San Martinen ibilguaren aurrealdean lerrokatutako eraikina eraistea proposatzen da, Ibaiederreko ezker aldeko pasabidea leheneratuz eta, era berean, igo egiten da Urola ibaiarekin bat egiten duen lekuan Ibaieder ibaiaren azterketa hidraulikoaren eguneraketan, Salaberria ingeniariak Udalaren enkarguz egindakoan, aurreikusitakoaren arabera aurreikusitako bizitegi-eraikin berrira sartzeko kota.

Proposatutako konponbideak berekin dakar plan hau LAP horretara egokitzea.

III.- PLANA GEHIENEO ETA GUTXIENEO HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA ARAUTZEKO MUGETARA EGOKITZEA.

Indarreko legerian (2/2006 Legeko 77. art., etab.) ezarritako gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasuna arautzeko parametroak batik bat bizitegi-erabilera duten hirigintza-garapenetan aplikatu beharrekoak dira. Ondorioz, jarraian, San Martin azpieremuan horiek bete izanaren justifikazioari helduko zaio.

Horiek horrela, azpieremuaren bizitegi-zona globalaren azalera 5.262 m²-koa da, eta sestra gaineko 9.452 m²-ko(s) eraikigarritasuna ezartzen da horretarako. Horrek esan nahi du sestra gaineko 0,56 m²(s)/m²-ko eraikigarritasuna dagoela.

Eraikigarritasun hori baimendutako maximoa (2,3 m²(s)/m²) baino txikiagoa eta baimendutako minimoa (0,4 m²(s)/m²) baino handiagoa da.

Donostian, 2022ko abenduan.



Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

1.3. dokumentua.
GENERO-INPAKTUAREN EBALUAZIOA

AURKIBIDEA

I.-	Dokumentuaren xedea.	2
II.-	Ebaluazio hau egiteko esparru orokorra.	2
III.-	Azpeitiko hiri-ingurunearen ezaugarriak eta baldintzatzaileak. Plan Orokorraren Aldaketaren helburuak eta proposamenak.	3
IV.-	Azpeitiko egungo egoeraren diagnostikoa genero-ikuspegitik.	4
V.-	Hirigintza-plangintzan genero-ikuspegia txertatzeari lotutako helburuak eta irizpideak.	12
VI.-	Plan Orokorraren Aldaketaren proposamenen ebaluazioa genero-ikuspegitik.	16
VII.-	Ondorioak.	20

I.- DOKUMENTUAREN XEDEA.

Dokumentu honen xedea da osatzen duen hirigintza-plana genero-ikuspegitik ebaluatzea.

Ebaluazio hori hurrengo II. epigrafean aipatutako xedapenen eta dokumentuen esparruan egiten da.

II.- EBALUAZIO HAU EGITEKO ESPARRU OROKORRA.

Planteatutako ebaluazioa, besteak beste, honako hauetan ezarritako aurreikuspenek osatutako esparruan egiten da:

1.- Honako xedapen orokor hauek:

Hona hemen xedapen horien zerrenda:

- * Estatuko Administrazioak sustatutakoak:
 - Emakume eta gizonezkoen berdintasun eragingarrirako Legea, 2007ko martxoaren 22koa (3/2007 Legea).
 - Lurzoru eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina, 2015eko urriaren 30ekoa (7/2015 LED) ("20.1.c" art.).
- * Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatutakoak:
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa (4/2005 Legea), geroago 3/2012 eta 1/2022 legeek aldatua.

Testuinguru horretan, eta 4/2005 Legeko 19. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (1/2022 Legetik eratorritako aldaketen ondoriozko edukia), *xedapen orokorren izaera juridikoa duten planei, batik bat lurralde- eta hirigintza-planei, genero-inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egin behar zaie, eta berdintasuna sustatzeko neurriak sartu behar dira. Nolanahi ere, duen espezifikotasuna dela-eta, erregelamendu bidez zehaztuko da izapide hori nola gauzatu behar den.*

Erregelamendu bidezko garapen hori ez da sustatu orain arte. Horregatik, ebaluazio hori egiteko irizpideak ez daude zehaztuta.

2.- Azpeitiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.

2.1.- Planaren edukia.

A.- Hirigintzarekin, mugikortasunarekin eta ingurumenarekin lotutako helburuak:

- * Hirigintza-arloan lan egiten duten pertsonen beren jardueran genero-ikuspegia txertatu ahal izateko tresnak eskaintzea.

- * Genero-ikuspegia txertatzea udalerriaren hirigintza-antolamenduan eta diseinuan.
- * Udal-plangintzaren bidez, zaintza-lanak egitea eta zeregin horiek lan produktiboen eta bizitza pertsonalaren garapenarekin koordinatzea erraztuko duten espazioak sortzea.
- * Herritarren eta, bereziki, emakumeen segurtasuna sustatzea, udalerriaren diseinu egokiaren bidez.

B.- Hirigintzarekin, mugikortasunarekin eta ingurumenarekin lotutako ekintzak:

- * Udal-plangintzarekin lotutako proiektu eta jardueretan emakumeen ikuspegia ezagutzeko eta kontuan hartzeko neurriak zehaztea.
- * Emakumeek udalerrian duten presentzia sinbolikoa areagotzea, kontuan hartuta horretarako egiten diren proposamenak, bai eta emakumeak ere, kale, plaza, auzo, monumentu eta abarren izendapena zehaztean.
- * Zaintzaileen eta mendekotasuna duten pertsonen erosotasuna bermatzeko espazioak sortzea, azken horiek zaintzeko lanak egitean. Haurrak zaintzeko jolas-eremuak sortzea.
- * Irisgarritasun-arazoei erantzuna ematea, emakumeen behar espezifikoak eta emakume horretarako egindako proposamenak kontuan hartuta.
Antolamendu inklusiboaren premisan oinarritutako lan-programa bat garatzea, hiri debekatuaren mapa erreferentziatza hartuta.
- * Udalerriko gune ez-seguruak identifikatzea eta horiek hobetzeko neurriak proposatzea.

III.- AZPEITIKO HIRI-INGURUNEAREN EZAUGARRIAK ETA BALDINTZATZAILEAK.
PLAN OROKORRAREN ALDAKETAREN HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK.

1.- Azpeitiko hiri-ingurunearen ezaugarriak eta baldintzatzaileak.

Hona hemen ezaugarri eta baldintzatzaile horietako batzuk:

- * 15.294 biztanle ditu (Eustat. 2022); horietatik 7.561 eta 7.733 emakumeak eta gizonak dira, hurrenez hurren.
- * Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (Betiko O.: 2013-IX-17) adierazitakoaren arabera, udalerriaren azalera osoa 6.939,82 ha-koa da.
Guztizko horretatik, 245 ha inguru (% 3,54) hiri-lurzoru gisa sailkatuta daude (horri dagokionez, ez dira zenbatu HAPO horren aldaketa puntualetatik erator litezkeen aldaketak, onartu zenetik sustatutakoak).
- * Guztira 6.725 familia-etxebizitza ditu (Eustat. 2021).
- * Hiri-ingurunearen orografia laua da, salbuespen puntualen kalterik gabe.
- * Ekipamendu- eta zerbitzu-sare garrantzitsu eta zabala du, merkataritza barne.
- * Mugikortasun-arloan:
 - Gipuzkoako garraio publikoaren sarean sartuta dago, zehazki, hiriarteko autobusen sarean.
 - Oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbide-sare garrantzitsu eta zabala du, hiri-ingurunearen zatirik handienara zabaltzen dena, eta baita hortik haratago ere.

Hiri-kalitate handiko udalerria da. Irisgarritasun-baldintza on eta erosoak ditu (garraio publikoa, oinezkoentzako eta bizikletentzako sareak...) eta hiri-ingurune osora hedatutako mota guztietako zerbitzu eta ekipamenduen sarea.

2.- Plan Orokorraren Aldaketaren helburuak eta proposamenak.

Proposamen horiek eta horiei erantzuten dieten helburuak Plan Orokorraren Aldaketan bertan azaldutakoak dira. Hona hemen horietako batzuk, laburbilduta:

- * Aldaketak Garmendialde eremuan dauden Perdillegi eta San Martin azpierzemuei eragiten die. Horiek guztiak indarreko HAPOn daude mugatuta. Bi azpierzemuak elkarrengandik oso hurbil daude, 300 metro inguruko distantziara, hain zuzen ere.

7.125 m² eta 6.090 m² dituzte, hurrenez hurren, guztira 13.215 m² osatuz.

- * Bi azpierzemuak udalerriko hirigunean daude, gune horri dagozkion hiri-zerbitzuak dituzte (ur-hornidura, saneamendua, elektrizitatea, telekomunikazioak...) eta irisgarritasun unibertsalaren arloko baldintza egokiak dituzte.
- * Indarreko HAPOk Perdillegiren bizitegi-garapena aurreikusten du (etxebizitza babestuekin), eta San Martinen zuzkidura-helburua finkatzen du (adinekoen egoitza).
- * Aldaketak aurreikuspen horiek doitzea planteatzen du, eta Perdillegi zuzkidura-helburutara bideratzen du [ekipamendu publikoa – adinekoen egoitza; 9.269 m²(s)-ko eraikigarritasunarekin] eta San Martin bizitegi-helburutara (86 etxebizitza babestu inguru), merkataritza-lokalen 200 m²(s)-rekin osatuta.

IV.- AZPEITIKO EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA GENERO-IKUSPEGITIK.

1.- Sarrera.

Egungo egoera, azaletik azalduta, hurrengo tauletan ageri diren informazioari eta datuei lotutakoa da.

1. TAULA.
BIZTANLERIAREN BILAKAERA. EGUNGO EGOERA. ADINA ETA SEXUA.

DIETANERAKEN DIERAKERA: EGUNCO EGUTERA: ADINA ETA SEXUA:

SEXUA	ADINA	URTEA						
		2010		2015		2022		
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
Emakumeak	0 – 19	1.433	% 20,36	1.532	% 20,99	1.531	% 20,25	
	20 – 64	4.297	% 61,04	4.221	% 57,82	4.251	% 56,22	
	>= 65	1.310	% 18,61	1.547	% 21,19	1.779	% 23,53	
	Guztira	7.040	% 100,00	7.300	% 100,00	7.561	% 100,00	
Gizonak	0 – 19	1.499	% 20,80	1.661	% 22,08	1.711	% 22,13	
	20 – 64	4.576	% 63,51	4.504	% 59,88	4.488	% 58,04	
	>= 65	1.130	% 15,68	1.357	% 18,04	1.534	% 19,84	
	Guztira	7.205	% 100,00	7.522	% 100,00	7.733	% 100,00	
Guztira	0 – 19	2.932	% 20,58	3.193	% 21,54	3.242	% 21,20	
	20 – 64	8.873	% 62,29	8.725	% 58,87	8.739	% 57,14	
	>= 65	2.440	% 17,13	2.904	% 19,59	3.313	% 21,66	
	Guztira	14.245	% 100,00	14.822	% 100,00	15.294	% 100,00	
Emakumeak. Guztira		---	7.040	% 49,42	7.300	% 49,25	7.561	% 49,44
Gizonak. Guztira		---	7.205	% 50,58	7.522	% 50,75	7.733	% 50,56
GUZTIRA		---	14.245	% 100,00	14.822	% 100,00	15.294	% 100,00

Taulako datuak lortu diren iturria: EUSTAT.

2. TAULA.
BIZTANLERIA, SORLEKUAREN ETA ALDIAREN ARABERA (%).

JAIOLEKUA	2010		2015		2022	
Araba	48	% 0,34	47	% 0,32	43	% 0,28
Bizkaia	166	% 1,17	176	% 1,19	195	% 1,28
Gipuzkoa	12.235	% 85,89	12.558	% 84,73	12.699	% 83,03
EAE, GUZTIRA	12.449	% 87,39	12.781	% 86,23	12.937	% 84,59
Beste probintzia batzuk	914	% 6,42	899	% 6,07	858	% 5,61
Atzerria	882	% 6,19	1.142	% 7,70	1.499	% 9,80
GUZTIRA	14.245	% 100,00	14.822	% 100,00	15.294	% 100,00

Iturria: EUSTAT.

3. TAULA.
JARDUERAREN, JARDUERARIK EZAREN ETA LANGABEZIAREN TASAK, SEXUAREN ETA ALDIEN ARABERA (16 urtetik gora) (%).

BIZTANLERIAREN EGOERA	SEXUA	2010	2015	2021
Biztanleria aktiboa (lana duena + langabea)	Emakumeak	40,70	43,70	45,20
	Gizonak	53,90	51,90	50,10
	Guztira	47,30	47,90	47,70
Biztanleria ez-aktiboa	Emakumeak	55,67	53,20	51,87
	Gizonak	44,33	46,80	48,13
	Guztira	52,66	52,11	52,47
Lana duen biztanleria	Emakumeak	44,50	45,60	48,80
	Gizonak	59,80	52,70	56,90
	Guztira	52,20	49,20	52,80
Biztanleria langabea	Emakumeak	8,70	13,60	9,50
	Gizonak	8,00	16,80	6,90
	Guztira	8,30	15,40	8,10

Iturria: EUSTAT.

5. TAULA.
UROLA-KOSTAKO 10 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA, FORMAKUNTZA-MAILAREN, SEXUAREN
ETA ALDIAREN ARABERA.

EGOERA	SEXUA	2010		2015		2021	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Analfabetoak	Emakumeak	181	% 0,28	151	% 0,23	99	% 0,14
	Gizonak	107	% 0,17	85	% 0,13	56	% 0,08
	Guztira	288	% 0,45	236	% 0,35	155	% 0,22
Ikasketarik gabe	Emakumeak	869	% 1,36	753	% 1,13	650	% 0,94
	Gizonak	710	% 1,11	586	% 0,88	544	% 0,79
	Guztira	1.579	% 2,46	1.339	% 2,01	1.194	% 1,73
Lehen mailako ikasketak	Emakumeak	12.843	% 20,04	12.240	% 18,39	10.869	% 15,71
	Gizonak	12.378	% 19,31	11.700	% 17,58	10.335	% 14,94
	Guztira	25.221	% 39,35	23.940	% 35,97	21.204	% 30,65
Ikasketa profesionalak	Emakumeak	3.914	% 6,11	4.675	% 7,02	5.602	% 8,10
	Gizonak	6.046	% 9,43	7.364	% 11,06	8.753	% 12,65
	Guztira	9.960	% 15,54	12.039	% 18,09	14.355	% 20,75
Bigarren mailako ikasketak	Emakumeak	6.546	% 10,21	6.667	% 10,02	7.016	% 10,14
	Gizonak	7.160	% 11,17	7.150	% 10,74	7.375	% 10,66
	Guztira	13.706	% 21,38	13.817	% 20,76	14.391	% 20,80
Erdi-go mailako ikasketak	Emakumeak	3.138	% 4,90	2.920	% 4,39	2.745	% 3,97
	Gizonak	2.087	% 3,26	1.810	% 2,72	1.643	% 2,37
	Guztira	5.225	% 8,15	4.730	% 7,11	4.388	% 6,34
Goi-mailako ikasketak	Emakumeak	4.476	% 6,98	5.867	% 8,82	7.760	% 11,22
	Gizonak	3.644	% 5,68	4.589	% 6,89	5.732	% 8,29
	Guztira	8.120	% 12,67	10.456	% 15,71	13.492	% 19,50
GUZTIRA	Emakumeak	31.967	% 49,87	33.273	% 49,99	34.741	% 50,22
	Gizonak	32.172	% 50,19	33.284	% 50,01	34.438	% 49,78
	Guztira	64.099	% 100,00	66.557	% 100,00	69.179	% 100,00

Iturria: EUSTAT.

Zutabeen ehunekoak, kasu guztietan, erreferentziako urteko biztanleriaren % 100arekin erlazionatuta daude.

6. TAULA.
BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA, SEXUAREN ETA ALDIAREN ARABERA.

ERRENTA MOTA	SEXUA	2009	2015	2019
Errenta, guztira	Emakumeak	13.619	15.089	17.803
	Gizonak	27.744	25.472	28.534
	Guztira	20.680	20.302	23.149
Lan-errenta	Emakumeak	8.173	8.752	10.151
	Gizonak	17.261	14.976	16.433
	Guztira	12.716	11.877	13.281

Iturria: EUSTAT.

7. TAULA.
AMATASUNAGATIKO ETA ESZEDENTZIENGATIKO PRESTAZIOAK, SEXUAREN ARABERA. GIPUZKOA.

PRESTAZIO- EDO JARDUKETA- MOTA	URTEA								
	2008			2014			2018		
	Prestazio / jarduketa kop.	Emakumeek hartutako / egindako %	Gizonek hartutako / egindako %	Prestazio / jarduketa kop.	Emakumeek hartutako / egindako %	Gizonek hartutako / egindako %	Prestazio / jarduketa kop.	Emakumeek hartutako / egindako %	Gizonek hartutako / egindako %
Amatasunagatiko prestazioak	18.058	% 96,26	% 3,74	15.345	% 95,5	% 4,5	12.713	% 95,2	% 4,8
Seme-alabak zaintzeko eszedentzia	2.554	% 95	% 5	3.435	% 95,3	% 4,7	4.815	% 90,7	% 9,3
Senitartekoak zaintzeko eszedentzia	167	% 85	% 15	354	% 82,2	% 17,8	535	% 82,1	% 17,9

Iturria: Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko KOPURUEN txostenak, EMAKUNDEk eginak, hurrenez hurren, 2010 (2008), 2015 (2014) eta 2019 (2018) urteetan.

8. TAULA.
DENBORAREN ERABILERA. ETXEKO JARDUERETAN EMANDAKO ORDUAK, SEXUAREN ARABERA. EAE.

JARDUERA MOTA	ORDUAK EGUNEAN			
	Emakumeak		Gizonak	
	2013	2018	2013	2018
Etxeko lanak	2,2	2,1	1,4	1,4
Seme-alabak zaintzea	4,9	4,7	3,1	3,3
Mendekotasuna duten pertsonak zaintzea	2,3	2,4	1,5	1,4
GUZTIRA	9,4	9,2	6,0	6,1

Iturria: Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko KOPURUEN txostenak, EMAKUNDEk eginak, hurrenez hurren, 2010 (2008), 2015 (2013) eta 2019 (2018) urteetan.

9. TAULA.
GARRAIO-MODUA SEXUAREN ARABERA. EAE (2016).

GARRAIO-MODUA	EMAKUMEAK		GIZONAK		EAE, GUZTIRA	
	Bidaia-kop.	%	Bidaia-kop.	%	Bidaia-kop.	%
Ez-motorduna (oinez, bizikletaz)	1.790.628	53,42	1.511.883	45,08	3.302.511	49,25
Automobila	945.679	28,21	1.415.395	42,20	2.361.075	35,21
Eskatu ahalako autobusa	47.939	1,43	51.771	1,54	99.710	1,49
Errepideko garraio publikoa (hiri barruko eta hiriarteko autobusa)	276.579	8,25	128.231	3,82	404.811	6,04
Trenbidea (Topoa eta bestelakoak)	239.103	7,13	147.550	4,40	386.654	5,77
Motoa	10.121	0,30	69.370	2,07	79.491	1,19
Multimodala	34.658	1,03	24.759	0,74	59.417	0,89
Bestelakoak	7.355	0,22	4.841	0,14	12.196	0,18
GUZTIRA	3.352.062	100,00	3.353.800	100,00	6.705.865	100,00

Oharra: garraio-modu multimodalek eta beste batzuek ordainpeko igogailuak, funikularrak eta Zubi Esekia... gehitzen dituzte

10. TAULA.
MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO MODUEN BIDEZKO JOAN-ETORRIAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. EAE (2016).

JOAN-ETORRI KOP. GARRAIO-MODUA	7 – 19 URTE		20 – 44 URTE		45 – 64 URTE		65 URTE EDO GEHIAGO	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Joan-etorri kopurua, guztira	415.975	445.957	1.157.904	1.179.376	1.121.886	1.120.178	656.298	608.290
Oinez egindako joan-etorriak (%)	% 57,1	% 58,1	% 40,7	% 27,2	% 50,2	% 36,4	% 71,7	% 69,7
Bizikleta bidezko joan-etorriak (%)	% 2,2	% 4,3	% 1,8	% 4,5	% 1,5	% 2,3	% 0,2	% 0,3
Hiri barruko eta hiriarteko autobus bidezko joan-etorriak	% 7,1	% 5,7	% 9,0	% 4,0	% 8,2	% 2,7	% 7,7	% 4,1
Joan-etorriak Metro bidez	% 3,3	% 0,9	% 7,0	% 4,0	% 5,0	% 3,0	% 2,7	% 2,1
Joan-etorriak beste tren-modu batzuen bidez	% 2,1	% 2,0	% 2,2	% 1,9	% 2,5	% 1,4	% 1,1	% 0,6

11. TAULA

JOAN-ETORRIEN ARRAZOIAK, SEXUAREN ARABERA. EAE (2016).

JOAN-ETORRIEN ARRAZOIAK	EMAKUMEAK (%)	GIZONAK (%)
Lana	26,0	34,6
Ikasketak	13,3	13,7
Kudeaketa pertsonalak	7,8	7,2
Etxeko kudeaketak	1,0	0,8
Kudeaketa medikoak	3,3	2,7
Lagun egitea – Laguntza	11,1	6,4
Erosketa pertsonalak	1,1	0,8
Etxeko erosketak	11,6	5,5
Aisia	24,6	28,1
Bestelakoak	0,1	0,3
GUZTIRA	100,00	100,00

12. TAULA.

JOAN-ETORRIEN LURRALDE-EREMUA, SEXUAREN ARABERA. EAE (2016).

JOAN-ETORRIEN LURRALDE-EREMUA	EMAKUMEAK (%)	GIZONAK (%)
Udalerrri barnekoa	71,8	63,5
Eskualde barnekoa	18,1	22,8
Lurralde barnekoa	6,9	8,8
Lurralde artekoa	2,2	3,3
Kanpokoak	1,0	1,5
GUZTIRA	100,00	100,00

13. TAULA.

JOAN-ETORRI KOPURUAREN ETA MUGIKORTASUN-MODUEN BILAKAERA. EAE (2016).

GARRAIO-MODUA	JOAN-ETORRI KOPURUA		JOAN-ETORRIEN ALDAKUNTZA (%)
	2011	2016	
Oinez	2.777.979	3.155.054	13,6
Bizikleta	116.938	147.456	26,1
Ez-motordunak	2.894.917	3.302.511	14,1
Autoa gidaria	1.861.002	1.914.742	2,9
Autoa bidaiaria	350.379	438.627	25,2
Taxia	8.285	7.705	- 7,0
Automobila	2.219.667	2.361.075	6,4
Motoa	58.255	79.491	36,5
Hiribusa	235.431	240.871	2,3
Hiriarteko autobusa	139.407	163.940	17,6
Eskatu ahalako autobusa	147.804	99.710	- 32,5
Autobusa	522.642	504.521	- 3,5
Topoa	273.898	266.247	- 2,8
Euskotren	40.558	43.325	6,8
Renfe	56.938	41.970	- 26,3
Renfe metrikkoa (FEVE)	2.900	2.796	- 3,6
Tranbia	29.972	32.315	7,8
Trena	404.266	386.654	- 4,4
Hegazkina	3.316	1.187	- 64,2
Multimodala	75.507	59.417	- 21,3
Bestelakoak	22.003	11.009	- 50,0
GUZTIRA	6.200.572	6.705.864	8,1

2.- Zenbait ondorio.

Aztertutako informazioak bidea ematen du honako alderdi hauek nabarmentzeko:

A.- Hirigintza-plangintzaren (aztergai dugun Plan Orokorraren Aldaketa barne) ebaluazioa genero-ikuspegitik egiteko, beharrezkoa da behar bezala bereizita, koordinatuta eta eguneratuta dauden informazioa, datuak eta estatistikak izatea. Horren aurrean, lortutako eta aztertutako informazioa:

- * Hainbat iturritatik sortzen da, eta, batzuetan, denak batera irakurtzea eta hausnartzea zailtzen duten parametro eta premisa mota desberdinak erabiltzen dituzte.
 - * Batzuetan ez dago gaiaren, sexuaren eta abarren arabera bereizita, zehaztasun- eta bereizketa-maila egokiarekin.
 - * Batzuetan, hainbat lurralde-eremutan eta denbora-tartetan eragiten du, eta horiek ere zaildu egiten dute azterketa orokor eta koherente bat egitea.
 - * Arreta handiagoa behar duten gaien adibide soil gisa, hobekuntzekin osatuta, honako hauek aipa daitezke:
 - Mugikortasuna eta, horren barruan: pertsonen erabiltzen dituzten mugikortasun motak; joan-etorrien arazoak; eta abar.
 - Erantzunkidetasuna, lan erreproduktiboa, etxeko lanetan emandako ordu-kopurua, etab.
- Eta hori guztia, datuak sexuaren arabera behar bezala bereizita eta Azpeitiko errealitatera egokituta.

Errealitate horrek justifikatzen du informazio zorrotza, etengabe eguneratua eta behar bezala bereizita eta koordinatua edukitzeko beharra azpimarratzea.

B.- Emakumeak, gutxi gorabehera, Azpeitiko biztanleriaren % 49,44 dira (2022).

C.- Etxeko lanak eta zaintza-lanak, gehien bat, emakumek egiten jarraitzen dute.

Zehazki, (EAEko datuak erreferentziatzat hartuta), gizonen etxeko lanetan egunean emandako orduak 2018an emakumeek egindakoen % 66,30 izan ziren.

Horren ondorioz, emakumeak dira aipatutako etxeko jarduerekin lotutako zerbitzu, ekipamendu eta gainerako hiri-zuzkiduren erabiltzaile nagusiak eta, zehazki, honako hauekin lotutakoak: etxeko erosketak (merkataritza); seme-alabak zaintzea (besteak beste, eskola-, kirol-, kultura-, jolas-, aisialdi- eta osasun-jarduerak); mendekotasuna duten pertsonak zaintzea (adinekoen egoitzak; jolas- eta aisialdi-jarduerak, osasun-jarduerak...).

Eta baita bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren erabiltzaile nagusiak ere, etxeko lanak eta zaintza-lanak egiteko garrantzi eta protagonismo berezia duten lekuak baitira.

D.- Emakumeak, batez ere, garraio-modu ez-motordunen eta garraio publikoaren bidez mugitzen dira. Horik horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) datuak erreferentziatzat hartuta, honako hau adierazi behar da:

- * Emakumeen joan-etorri gehienak (% 68,8 EAEn) garraio-modu ez-motordunen eta garraio publikoaren bidez egiten dira. Gizonen kasuan, ehuneko hori % 53,22koa da.
- * Emakumeen joan-etorrien % 28,5 eta gizonen joan-etorrien % 44,30 motordun garraio pribatuaren bidez egiten dira (automobil indibiduala edo motoa).

E.- EAEko datuak ere erreferentziatzat hartuta, emakumeen joan-etorrien ehuneko handi bat etxeko lanak edo lan erreproduktiboak (% 27) eta lan produktiboak (% 26) egiteari lotuta dago.

Gizonen kasuan, berriz, joan-etorri mota horiek % 15,4 eta % 34,6 dira, hurrenez hurren.

F.- Emakumeen errenta ekonomiko pertsonala gizonena baino txikiagoa da.

2019. urtean, emakumeen lan-errenta gizonen errentaren % 62 zen.

Urte berean, berriz, emakumeen guztizko errenta gizonen errentaren % 62 zen.

G.- Segurtasunik ezak edo segurtasunik ezaren pertzepzioak eta horren ondoriozko ondorioek askoz ere eragin handiagoa dute emakumeengan gizonengan baino.

V.- HIRIGINTZA-PLANGINTZAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEARI LOTUTAKO HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK.

1.- Sarrera.

Azpeitia udalerria Gipuzkoaren barnealdean dago, bere erdigunean, Urola ibaiaren haranean.

6.939,82 ha-ko azalera du guztira. Guztizko horretatik, 245 ha inguru (% 3,54) hiri-lurzoru gisa sailkatuta daude, 104,87 ha inguru (% 1,52) lurzoru urbanizagarri gisa eta 6.589 ha inguru (% 94,95) lurzoru urbanizaezin gisa.

Hizpide dugun HAPOn Aldaketaren xede den eremua udalerriko hiri-lurzoruen zati da, eta haren hirigunean dago. Aldaketa horrek eragindako azalera (13.215 m²) lurzoru-mota horren % 0,54 inguru da.

Testuinguru horretan, Aldaketak indarreko HAPOn aurreikuspenak doitzea planteatzen du eta, zehazki, Perdillegi azpideremua zuzkidura-helburutarako erabiltzea [ekipamendu publikoa – adinekoen egoitza; 9.269 m²(s)-ko eraikigarritasunarekin] eta San Martin bizitegi-helburutarako (86 etxebizitza babestu inguru), merkataritza-lokalen 200 m²(s)-rekin osatuta. Proposamen horiek indarreko HAPOn aurreikusitakoak trukitzea dakarte. Doikuntza kuantitatiboak (etxebizitza kopurua, eraikigarritasuna...) puntualak dira, eta ez dute eragin berezirik dokumentu honetan ebaluatutako gaietan.

2.- Hirigintza-plangintza eta esku-hartzeko helburu eta irizpide orokorrak genero-ikuspegitik. Plan Orokorraren Aldaketari dagozkion berezitasunak.

2.1.- Esku-hartzeko helburu orokorrak genero-ikuspegitik.

IV. epigrafean azaldutako informazioak eta gogoetek bide ematen dute ondorioztatzeko hirigintza-plangintzan genero-ikuspegia txertatzeak justifikatu egiten duela ondoren azalduko diren esku-hartzearen helburu eta irizpide orokorretara, Azpeitiko berezitasun eta baldintzatzaileekin bat datozenetara, egokitzea:

A.- Erabileren nahasketa.

Lan produktibo eta erreproduktiboekin edo zaintza-lanekin lotutako zeregin-katea arrazoizko baldintza orekatuetan egiteak justifikatu egiten du ahalik eta hurbilen etxebizitzak, lan produktiboko tokiak eta lan erreproduktiboak egiteko beharrezko ekipamenduak eta zerbitzuak izango dituen hiri-ingurune bat antolatzea.

Elementu horien artean zenbat eta distantzia handiagoa egon, orduan eta konplexuagoa eta zailagoa izango da horiek egitea, eta are okerragoa izango da horiek egiten dituzten pertsonen bizi-kalitatea.

Lan erreproduktiboak gehienbat egiten dituzten pertsonak edozein direla ere, aipatutako irizpideekin bat datorren hiri-ingurunea antolatzeak haien bizi-kalitatea hobetzea ekarriko du. Eta une honetan lan horiek gehienbat emakumeek egiten dituztenez, hiri-antolamendu mota horrek haien kalitatea hobetzen lagunduko du.

B.- Bitarteko ez-motordunen (batez ere oinez) eta garraio publikoaren bidezko konexioa eta mugikortasuna.

Lan produktibo eta erreproduktiboen katea gehienbat egiten duten pertsonak (emakumeek) joan-etorrietarako, garraio-modu ez-motordunak eta garraio publikoa erabiltzen dituzten heinean, hiri-ingurunea eta bertan aurreikusitako garapenak egokiro eta zentzuz txertatu behar dira garraio-modu horien sareetan.

C.- Lasaia, barea eta segurua den, eta, aldi berean, zerbitzu egokiak dituen hiri-ingurunea antolatzea.

Aipatutako lanak eta, bereziki, lan erreproduktiboak edo zaintza-lanak aipatutako baldintzetan egiteak (garraio-modu ez-motordunak horretarako erabiltzearekin lotutakoak barne), mendekotasuna duten pertsonengan (haurrak, adinekoak, mugikortasun murriztua duten pertsonak) duten eragina gehituta, hiri-ingurune lasai, bare eta seguru bat antolatzea justifikatzen du, bertatik elementurik agresiboenak edo distortsionatzaileenak bereiziz (igarotzeko bide-sareak...).

D.- Segurtasuna eta inklusibitatea.

Kontuan hartu beharreko beste helburuetako bat da hiri-ingurune seguru eta inklusibo bat antolatzea, baita haren pertzepzioaren ikuspegitik ere. Haren konplexutasun guztian kontuan hartuta, honako premisa hauei estuki lotutako helburua da:

- * Ikusgarritasuna, ikusteko eta ikusia izateko aukera ematen duen erreferentetzat hartuta.
- * Espazio publikoan egokitzen diren hiri-altzariak eta -instalazioak jartzea.
- * Jendea elkartzea, entzuteko eta entzuna izateko aukera ematen duen parametrotzat hartuta.
- * Zaintza formala eta laguntza eskuratzea, laguntza lortzea edo ihes egin ahal izatea errazten duen premisatzat hartuta.
- * Seinaleztapena, non gauden eta nora joan nahi dugun jakitea ahalbidetzen duen parametrotzat hartuta.
- * Tokiak planifikatzea eta mantentzea, bai giro garbi eta atsegin batean bizitzeko, bai aurreko helburuak lortzeko.
- * Komunitatearen parte-hartzea, aurreko helburuak lortzeko beharrezkoa den erreferente gisa, inplikazio eta erantzunkidetasun kolektibotik abiatuta.

E.- Hiri-ingurune dentsoa eta trinkoa eta, aldi berean, fisikoki jarraitua.

Aurreko helburuen sinesgarritasuna eta bideragarritasuna lotuta daude, besteak beste, hiri-dentsitate edo -dimentsionamendu egokia duen hiri-ingurunea antolatzearekin (etxebizitzaren batekoa, jarduera ekonomikoak...) eta hiri-garapen berriak ingurune horretan behar bezala txertatzearekin, hiri-bilbe jarraitua eta konektatua sortuz.

Hiri-dentsitatea zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta zailagoa izango da gainerako esku-hartze helburu eta ardatzei erantzutea, erabilera-nahasketarekin eta zuzkidura eta zerbitzu egokien antolaketarekin lotutakoak barne.

Hori bai, dentsitate eta trinkotasun horiek arautzeko neurriak Azpeitiko hiri-ezaugarriekin eta -baldintzatzaileekin bat etorritik zehaztu behar dira.

F.- Etxebizitza eta hori genero-ikuspegira egokitzea.

Etxebizitzak behar bezalako arreta izatea justifikatzen du, besteak beste, ondorengo bi ikuspegietatik. Alde batetik, bereziki emakumeen etxebizitza-eskaerari erantzutea. Bestetik, etxeko lanak eta zaintza-lanak baldintza egokietan egiteak etxebizitza eta bere programa horretarako behar diren eskakizunetara egokitzea justifikatzen du. Eta hori, zeregin horiek emakumeek edo gizonek egiten dituzten kontuan hartu gabe.

2.2.- Aurreko helburuei lotutako esku-hartzeko irizpide orokorrak.

Helburu orokor horiek lortzeko justifikatu egiten du, baita genero-ikuspegitik ere eta hirigintza-plangintzari dagokionez, jarraian azalduko diren esku-hartzeko irizpide orokorrak zehaztea, era berean adierazten diren gaiekin lotuta:

A.- Hirigintza-garapen orokorreko eta, horren barruan, hiri-ingurunearen garapenerako eredu bat zehaztea, besteak beste, honako alderdi hauek justifikatzen dituzten adierazitako helburuekin bat datorrena:

- * Erabilera mota desberdinen presentzia kualitatiboa eta kuantitatiboa (etxebizitzak, jarduera ekonomikoak, ekipamenduak, espazio libreak...), elkarren artean bateragarriak direnak eta, bereziki, bizitegitarako hiri-ingurunea dibertsifikatzen eta aberasten dutenak.
- * Bizitegitarako hiri-ingurunean, bere ezaugarriekin eta baldintzatzaileekin bateraezinak diren erabilerak mugatzea edo debekatzea, bertan ondorio kaltegarriak eragiten dituztelako (sortzen duten trafikoari; jarduera osasungaitz eta arriskutsuen ezarpen eta garapenari; behar bezala justifikatutako beste edozein arrazoiri lotutakoak).
- * Dentsitate eta trinkotasun kualitatibo eta kuantitatiboa, Azpeitiko baldintzatzaileetara egokitua, eta, ahal den neurrian, hiri-bilbearen jarraitutasun fisikoarekin eta hirigintza-berroneratze prozesuen jarraitutasunarekin osatua, hala eskatzen duten bilbe horretako zatietara hedatuz.

B.- Hirigintza-tresnak erabiltzea (zonakatze orokorra eta xehatua; sailkapena; etab.), genero-ikuspegiarekin bat datozen helburuak eta irizpideak lortzeko, 2. atal honetan aipatutakoak barne.

Hirigintza-tresna horiek ez dira, inola ere, neutroak. Era batera edo bestera erabiltzeak aipatutako helburuak lortzea erraztu edo kaltetu dezake.

C.- Zuzkidura eta zerbitzu egokiak antolatzea eta ezartzea.

Azpeitiko hiri-inguruneak (bereziki bizitegi-eremuak) kasuan kasuko ekipamenduak, espazio libreak eta hurbileko zerbitzuak izan behar ditu (merkataritza barne).

Hori guztia, gainerako esku-hartze helburu eta irizpideekin bat etorritik eta modu bateragarrian.

D.- Mugikortasun-sare egokiak antolatzea (oinezkoenak eta bizikletenak bereziki) eta horietan hirigintza-garapenak txertatzea.

Hiri-garapen horiek udalerriaren barruko konexioari eta mugikortasunari dagokienez garraio-modu jasangarrien (ez-motorduna eta, hala badagokio, garraio publikoa) sareetan sartuta egon behar dute, edo erraz sartzeko modukoak izan behar dute.

E.- Hiri-ingurunearen eta haren espazio publikoaren segurtasuna eta inklusibitatea.

Hiri-ingurune seguru eta inklusiboa antolatzeak justifikatu egiten du jarraian azalduko diren irizpideetara egokitzea, era berean aipatzen diren esku-hartze eskala edo fase desberdinei lotuta:

- * Hiri-ingurune sozial eta funtzionalki bizia eta dinamikoa sortzea, aipatutako trinkotasun-ereduari, erabilera-nahasketari eta abarri erantzungo diona.

- * Espazio publikoa eta eraikinak antolatzea, ikusteko eta ikusia izateko helburu horri erantzuteko moduan eta, horretarako, honako gai hauei behar bezalako arreta jarritz: Jendea ibiltzen den eta biziak diren kaleak, ibilbideak eta abar antolatzea, ikuspegi eta horizonte bisual irekiekin eta argiekin; argiztapena; hiri-ikuspegitik zokoak, ezkutalekuak, ibilbide edo espazio *hutsak* kentzea; bizitegi-eraikuntzetara eta -partzeletara, bai eta horietan kokatutako etxebizitzetara ere sartzeko baldintzak zehaztea, aipatutako helburuarekin bat etorritz; eta abar.

Nolanahi ere, irizpide horiek gauzatzea esku-hartze eskala desberdinei lotuta dago. Hala, horietako batzuk hirigintza-antolamendua bera zehaztearekin lotuta daude. Beste batzuk, espazio publikoan esku hartzearekin, urbanizazio-lanen proiektuen bidez (argiztapena, hiri-altzariak, beste zerbitzu mota batzuk ezartzea, haurren jolas-guneen ezaugarriak eta baldintzatzaileak, etab.).

- * Hiri-garapen berriak antolatzea (hiria eraberritzeko eta berroneratzeko jarduketan ondoriozkoak barne), hiri-garapen horien segurtasuna eta inklusibitatea bermatzeko neurriak bertan sartuz.
- * Egungo puntu kritikoak pixkanaka ezabatzeko beharrezko neurriak zehaztea.

2.3.- Plan Orokorraren Aldaketaren berezitasunak eta bertan aurreko helburu eta irizpideak sartzea.

Hasiera batean, Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat egitea eta/edo hori osorik berrikustea da aurreko ataletan azaldutako helburu eta irizpideei erantzungo dien hiri-eredu bat zehazteko testuinguru egokia. Hori da testuinguru egokia, bere osotasunean eta konplexutasunean, horri buruzko beharrezko hausnarketa sustatzeko eta egokitatzat jotzen diren erabakiak hartzeko.

Horren aurrean, orain planteatutakoa bezalako HAPOren Aldaketa oso agertoki mugatua da horri dagokionez, eta aipatutako helburu eta irizpideen aplikazioa oso baldintzatuta dago edo egon daiteke edo, zenbaitetan, konplexua izan daiteke. Horrek justifikatzen du helburu eta irizpide horiek Aldaketaren baldintzatzaileetara egokitzea, hurrengo VI. epigrafean adierazitako baldintzetan.

VI.- PLAN OROKORRAREN ALDAKETA PUNTUALAREN PROPOSAMENEN EBALUAZIOA GENERO-IKUSPEGITIK.

1.- Sarrera.

Aztergai dugun eremua Azpeitiko hiri-ingurunean dago, batez ere etxebizitzak dituen eremu baten barruan, hainbat zuzkidura eta zerbitzurekin osatuta (ekipamenduak, merkataritza, espazio libreak...).

Testuinguru horretan, HAPOren Aldaketak bizitegi-izaera hori berresten edo errematatzen du, eta ekipamenduekin osatu (lehendik dagoena beste leku batean birkokatzen, egia esan).

Proposamenak genero-ikuspegitik ebaluatzeak justifikatzen du, besteak beste, honako bi egoera hauek kontuan hartzea. Batetik, V. epigrafean azaldutako helburuak eta irizpideak, Aldaketaren berezitasunetara egokituta. Bestetik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Azpeitiko Planean jasotako neurriak eta aurreikuspenak (III. epigrafeko 2. ataletan azalduta).

Hurrengo ataletan ebaluazio hori azaltzen da.

2.- Plan Orokorraren Aldaketaren proposamenak eta horien ebaluazioa, V. epigrafean azaldutako helburuen eta irizpideen ikuspegitik.

2.1.- Planteatutako proposamenen edukia.

A.- Planteatutako proposamenek, eta horien ondoriozko hiri-ereduak eta afekzioek honako hauek eragiten dituzte:

- * Azpeitiko hiri-bilbearen dentsitate kualitatiboa eta kuantitatiboa sustatzea eta, aurrekoarekin bat etorritik, trinkotzea.
- * Aurreikusitako hirigintza-garapena egungo hiri-bilbean txertatzea eta honekiko jarraitutasuna.
- * Erabilerak nahastea.
- * Etxebizitza-eskaerari erantzutea.
- * Dauden zuzkidurak eta zerbitzuak indartzea.
- * Mugikortasun jasangarriko bitartekoak indartzea.
- * Ondoriozko hiri-ingurunearen segurtasuna eta inklusibitatea.

Hurrengo ataletan, aurreko gaiak garatu eta justifikatzen dira.

B.- Azpeitiko hiri-bilbearen dentsitate kualitatiboa eta kuantitatiboa sustatzea eta trinkotzea, besteak beste, honako proposamen hauen ondorioa da:

- * 86 etxebizitza berri inguru antolatzea. Etxebizitza horiek egikaritzeak eta etorkizunean bertan biziko direnen okupazioak ondorio positiboak izango ditu ingurunean dauden eta aurreikusita dauden ekipamendu eta zerbitzuen (merkataritza barne) erabilera optimizatzeari dagokionez.

Ingurunekeo biztanleria hazteak eta, horrekin batera, ekipamendu eta zerbitzu horien erabiltzaileak hazteak horrelako ondorioak izango ditu edo izan ditzake.

- * Gaur egungo ekipamendu publikoaren ordeztu berri bat jartzea ere (adinekoentzako egoitza) hiri-ingurunearen dentsitate kualitatiboa aberasteko beste faktore bat da, ekipamendu horren eta hark eman beharreko zerbitzuaren kalitatea hobetuko baitu. Era berean, zaintza-lanak egitean ondorio positiboak izango ditu.

C.- Eraginpeko hiri-ingurunea Azpeitiko hiri-bilbearen zati da. Planteatutako baldintzetan antolatuz gero, hiri-ingurunea hiri-bilbean integratzea bultzatuko da, bai eta, ahal bada, multzoaren jarraitutasun fisikoa, soziala eta abar ere.

- D.- B atalean aipatutako erabilera guztiak antolatzeak eraginpeko hiri-inguruneari funtzio anitzeko hirigintza-izaera ematen lagunduko du. Horrek erabileren nahasketaren helburuarekin bat datozen ondorio positiboak izango ditu gutxienez ondoren aipatzen diren bi zentzuetan.

Batetik, Plan Orokorraren Aldaketak eragindako eremuari berari dagokionez. Bestetik, eremu hori osatzen duen hiri-inguruneari dagokionez. Orain planteatutako proposamenek eremu eta ingurune horien erabilerak eta funtzioak aberasten eta dibertsifikatzen lagunduko dute.

- E.- Etxebizitza berriak antolatzeak egungo etxebizitza-eskaerari erantzuten lagunduko du.

Nolanahi ere, proposamen hori genero-ikuspegira egokitzeak justifikatzen du Plan Orokorraren Aldaketaren proposamenak gauzatzeko testuinguruan berariaz aintzat hartzea jarraian aipatzen diren bi gai motak.

Alde batetik, prestakuntzari eta programaren eta edukiaren zehaztapenari dagokionez, aurreikusitako etxebizitzak eta zuzkidura-ostatuak 2022ko ekainaren 28ko Dekretuan (80/2022 Dekretua) aurreikusitakora egokitu beharko dira. Dekretu horretan, EAEko etxebizitzaren eta zuzkidura-ostatuen gutxienerako bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dira. Dekretu horretan ezarritakoaren arabera, haren aurreikuspenek hainbat motatako gaiak jorratzen dituzte, honako hauekin zerikusia dutenak: bizitegi- eta eraikuntza-partzeletarako sarbideak, horien atariak barne; eraikin horietako zirkulazioko eta komunikazioko espazio eta elementu komunak, eskailerak eta igogailuak barne; eta abar. Aurreikuspen horiek hertsiki lotuta daude genero-ikuspegiarekin, eta Plan Orokorraren Aldaketan aurreikusitako bizitegien eta zuzkidura-ostatuen proposamenak gauzatzeko sustatu beharreko eraikuntza-proiektuak horiei egokitu beharko zaizkie.

Bestetik, proiektatutako etxebizitza babestuen eta zuzkidura-ostatuen esleipenaren testuinguruan, behar bezalako arreta eskaini beharko zaie, egoki iritzitako baldintzetan, emakumeek etxebizitza eta ostatu duin eta kalitatezkoak eskuratzeko dituzten zailtasun espezifiko eta handiagoei, errenta ekonomiko txikiagoaren ondorio direnak barne.

- F.- Aurreikusitako etxebizitzaren ondoriozko biztanleria-hazkundeak, hirigunean duten kokapenarekin osatuta, eragin positiboak izango ditu mugikortasun jasangarriko moduetan, izaera horretako sareen (oinezkoentzako, txirrindularientzako eta abarrentzako sareak) erabiltzaile posibleen gehikuntza ekarriko baitu.

- G.- Planteatutako hirigintza-garapenak, gainera eta beste alderdi batzuen artean, espazio publikoan dauden pertsonen kopurua handitzea ekarriko du, bai ingurunean, bai bertara sartzeko korridoreetan.

Horiek horrela, etxebizitza berriak antolatzeak eta ekipamendu publikoa (adinekoentzako egoitza) birkokatzeak espazio publiko sozial eta funtzionalki bizia eta dinamikoa mantentzen eta indartzen lagunduko du.

Eta espazio publikoan jende gehiago egoteak haien segurtasuna eta inklusibitatea bermatzen lagunduko du.

Nolanahi ere, ondoriozko espazio publikoaren antolamenduak justifikatzen du eremuan sustatu beharreko urbanizazio-lanen proiektua edo proiektuak genero-ikuspegitik ebaluatzea. Eta hori guztia, proiektu horiek V. epigrafean ("2.1.D" atala) adierazitako helburuetara, bai eta antolatutako eta urbanizatu beharreko espazio publikoan genero-ikuspegia txertatzeko egokitzat jotzen den beste edozein helburutara ere egokitzen diren ebaluatzeko.

2.2.- Proposamenek generoaren arloan dituzten eraginak.

Proposamen horiek bat datoz V. epigrafean azaldutako esku-hartze helburu eta irizpide orokorrekin. Horrek esan nahi du proposamen horiek ondorio positiboak izango dituztela genero-ikuspegitik. Zehazkiago, oro har edo zehazki, modu osagarrian honako hauetan lagundu dute:

- * Eraginpeko hiri-ingurunea dibertsifikatzen, konplexuago egiten eta aberasten, bizitegi-erabilerak eta bizitegitarako ez diren erabilerak (ekipamenduak...) bertan ezartzearen eta mantentzearen alde eginez, nagusiki bizitegitarako den hiri-bilbe batean, eta guztiak hurbil daudela.
- * Dauden mugikortasun jasagarriko sareak optimizatzen.
- * Lan produktiboak eta erreproduktiboak egitea, bai eta lan horiek egiten dituzten pertsonen denbora kudeatzea arrazionalizatzen ere.
- * Eraginpeko hiri-inguruneke espazio publikoaren segurtasuna eta inklusibitatea sustatzen, ikasleen eta irakasleen hazkundeak espazio horren dinamikotasun soziala eta funtzionala mantentzen eta bultzatzen lagunduko duen neurrian.

3.- **Plan Orokorraren Aldaketaren proposamenak eta horien ebaluazioa Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Azpeitiko Planaren neurrien eta aurreikuspenen ikuspegitik.**

Aipatutako Berdintasunerako Planaren neurri eta aurreikuspenei dagokienez, honako hauek behar bezalako arreta merezi dute une honetan:

- A.- Plan Orokorraren Aldaketa genero-ikuspegitik ebaluatzen den heinean, aipatutako Berdintasunerako Planaren horri buruz ezarritako aurreikuspenak betetzen dira.
- B.- Plan Orokorraren Aldaketan planteatutako proposamenek funtzio anitzeko hirigintza sustatzea eta zerbitzuak eta ekipamenduak antolatzea dakarte, 2. atalean adierazitako moduan eta irismenarekin.

Gainera, proposamen horiek bat datoz irisgarritasun unibertsalaren eta espazioaren diseinu unibertsalaren eta/edo pertsona guztiek erabiltzeko espazioaren diseinuaren helburuarekin bat datozen espazioen sorkuntzaren arloan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako aurreikuspenekin.

Testuinguru horretan, Plan Orokorraren Aldaketaren proposamenak gauzatzeko sustatu beharreko eraikuntza-proiektuak eta urbanizazio-lanen proiektuak egokitu egin beharko dira arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako hirigintza- eta arkitektura-oztopoak kentzeko edo ez egoteko aurreikuspen arautzaileetara.


- C.- Herritarrek parte hartzeko prozesuarekin eta emakumeek prozesu horretan esku hartzearekin zerikusia duten neurriak Udalak zehaztuko ditu, horretarako testuinguru egokian. Hori zehaztea ez da Plan Orokorraren Aldaketaren berariazko zereginetako bat.
- D.- "2.1.E" atalean azaldutakoaren ildotik, etxebizitza babestuen eta proiektatutako zuzkidura-ostatuaren esleipenaren testuinguruan, behar bezalako arreta eskaini beharko zaie, egoki iritzitako baldintzetan, emakumeek etxebizitza eta ostatu duin eta kalitatezkoak eskuratzeko dituzten zailtasun espezifiko eta handiagoei, errenta ekonomiko txikiagoaren ondorio direnak barne.

VII.- ONDORIOAK.

Aurreko VI. epigrafean azaldutako gogoetek bide ematen dute ondorioztatzeko Plan Orokorraren Aldaketaren proposamenak bat datozela genero-ikuspegiarekin. Nolanahi ere, eta adierazitakoaren arabera, honako hau planteatzen da:

- 1.- Plan Orokorraren Aldaketaren proposamenak gauzatzeko sustatu beharreko urbanizazio-proiektua edo -proiektuak genero-ikuspegitik ebaluatzea. Proiektu horiek V. epigrafean ("2.1.D" atala) adierazitako helburuetara, bai eta antolatutako eta urbanizatu beharreko espazio publikoan genero-ikuspegia txertatzeko egokitzen jotzen den beste edozein helburutara ere egokitzen diren aztertzea.
- 2.- Antolatutako bizitegi-partzeletan eta zuzkidura-ostatuetan sustatu beharreko eraikuntza-proiektuak, besteak beste, EAEko etxebizitzaren eta zuzkidura-ostatuaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen 2022ko ekainaren 28ko Dekretuan (80/2022 Dekretua) ezarritako aurreikuspenetara egokitu beharko dira.
- 3.- Proiektatutako etxebizitza babestuen esleipena horri dagokionez eta testuinguru egokian (Plan Orokorraren Aldaketatik kanpo) Udalak zehazten dituen neurrietara egokituko da, hala badagokio, emakumeek etxebizitza eta ostatu duin eta kalitatezkoak eskuratzeko dituzten zailtasun espezifiko eta handiagoak kontuan hartuta justifikatutzat jotzen direnetara barne.
- 4.- Plan Orokorraren Aldaketarekin lotuta sustatu beharreko herritarren partaidetza-prozesuari eta emakumeek prozesu horretan esku-hartzeari dagokionez, Udalak horretarako testuinguru egokian erabakitakoa beteko da.

Donostian, 2022ko abenduan.



Sin.: Mikel Iriondo

1.4. dokumentua.
HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA

AURKIBIDEA

I.-	Dokumentu honen xedea.	2
II.-	Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egiteko esparru orokorra. Metodologia.	2
III.-	Plan Orokorren Aldaketa eta bere proposamenak.	2
IV.-	Azpeitiko egoera sozioekonomiko eta soziolinguistiko orokorra.....	3
V.-	Plan Orokorren Aldaketa hizkuntza-ebaluaziotik salbuetsitako kasuren batean dagoen ala ez aztertzea.....	5
VI.-	Plan Orokorren Aldaketaren hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztea.	6
VII.-	Ondorioak.....	10

I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko Legeko (2/2016 Legea) 7.7 artikuluan eta 179/2019 Dekretuan (49. art) udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektuak edo planak onartzeko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen eragina ebaluatu behar da, eta ebaluazio horretatik eratorri eta egokitzeak jotako neurriak proposatu behar dira.

Zehatzago esanda, 179/2019 Dekretuaren 50. artikuluan adierazitakoaren arabera, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrek (eta horien funtsezko aldaketek) ebaluazio hori egin behar dute, euskararen erabileran ondorioak dituztenean.

Era berean, ebaluazio hori 179/2019 Dekretuan ezarritako aurreikuspenetara –II. epigrafean azaldutakoetara– egokitu behar da.

Ebaluazio hori aurreikuspen horien arabera egitea da dokumentu honen xedea.

II.- HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA EGITEKO ESPARRU OROKORRA. METODOLOGIA.

Esparru hori 2/2016 Legeak eta 179/2019 Dekretuak osatzen dute. Eta, zehazki, dekretu horretan ezarritakoaren arabera, dokumentu honen xede diren zereginak honako irizpide metodologiko hauei egokitu behar zaizkie:

- * Plan Orokorren Aldaketa ebaluaziotik salbuetsitako kasuren batean dagoen edo egon daitekeen aztertzea (179/2019 Dekretuaren 51. artikulua).
- * Hizkuntza-azterketaren irismena zehaztea (179/2019 Dekretuaren 53. artikulua), aurreko azterketatik ondorioztatzen bada Plan Orokorren Aldaketa ez dagoela ebaluaziotik salbuetsita.
- * Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea (179/2019 Dekretuaren 54. artikulua), aurreko irismenaren azterketatik ondorioztatzen bada Plan Orokorren Aldaketak eta haren proposamenek eragin linguistiko nabarmenak izan ditzaketela.

Osagarri gisa, eta informatzeko soilik, aurreko aurreikuspenak honako aurreikuspen hauekin osatzen dira; alde batetik, Plan Orokorren Aldaketaren proposamenen azalpenari buruzkoekin (III. epigrafea) eta, bestetik, Azpeitiko egoera sozioekonomikoari eta soziolinguistikoari buruzko informazioaren eta datuen azalpenari buruzkoekin (IV).

III.- PLAN OROKORRAREN ALDAKETA ETA BERE PROPOSAMENAK.

Proposamen horiek eta horiei erantzuten dieten helburuak Plan Orokorren Aldaketan bertan azaldutakoak dira. Hona hemen horietako batzuk, laburbilduta:

- * Perdillegi azpieremuari dagokionez: ekipamendu publikoko erabileretara (adinekoen egoitza) bideratzea, gaur egun San Martin eremuan dagoen ekipamendua bertara eramanez.

- * San Martin azpieroemuari dagokionez:
- Bizitegi-erabileretara bideratzea, gaur egun duen ekipamendu publikoko erabilerara bideratu orde (adinekoen egoitza).
 - 86 etxebizitza berri (babestuak) aurreikusit dira.

IV.- AZPEITIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKO ETA SOZIOLINGUISTIKO OROKORRA.

1.- Azpeitiko biztanleria.

EUSTATen datuen arabera, Azpeitiko biztanleriaren egoera eta bilakaera ondorengo tauletan ikus daitezke.

1. TAULA.
BIZTANLERIAREN BILAKAERA. EGUNGO EGOERA. ADINA ETA SEXUA.

SEXUA	ADINA	URTEA					
		2010		2015		2022	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Emakumeak	0 – 19	1.433	% 20,36	1.532	% 20,99	1.531	% 20,25
	20 – 64	4.297	% 61,04	4.221	% 57,82	4.251	%56,22
	>= 65	1.310	% 18,61	1.547	% 21,19	1.779	% 23,53
	Guztira	7.040	% 100,00	7.300	% 100,00	7.561	% 100,00
Gizonak	0 – 19	1.499	% 20,80	1.661	% 22,08	1.711	% 22,13
	20 – 64	4.576	% 63,51	4.504	% 59,88	4.488	% 58,04
	>= 65	1.130	% 15,68	1.357	% 18,04	1.534	% 19,84
	Guztira	7.205	% 100,00	7.522	% 100,00	7.733	% 100,00
Guztira	0 – 19	2.932	% 20,58	3.193	% 21,54	3.242	% 21,20
	20 – 64	8.873	% 62,29	8.725	% 58,87	8.739	% 57,14
	>= 65	2.440	% 17,13	2.904	%19,59	3.313	% 21,66
	Guztira	14.245	% 100,00	14.822	% 100,00	15.294	% 100,00
Emakumeak. Guztira	---	7.040	% 49,42	7.300	% 49,25	7.561	% 49,44
Gizonak. Guztira	---	7.205	% 50,58	7.522	% 50,75	7.733	% 50,56
GUZTIRA	---	14.245	% 100,00	14.822	% 100,00	15.294	% 100,00

Taulako datuak lortu diren iturria: EUSTAT.

2. TAULA.
BIZTANLERIA, SORLEKUAREN ETA ALDIAREN ARABERA (%).

JAIOLEKUA	2010		2015		2022	
Araba	48	% 0,34	47	% 0,32	43	% 0,28
Bizkaia	166	% 1,17	176	% 1,19	195	% 1,28
Gipuzkoa	12.235	% 85,89	12.558	% 84,73	12.699	% 83,03
EAE, guztira	12.449	% 87,39	12.781	% 86,23	12.937	% 84,59
Beste probintzia batzuk	914	% 6,42	899	% 6,07	858	% 5,61
Atzerria	882	% 6,19	1.142	% 7,70	1.499	% 9,80
GUZTIRA	14.245	% 100,00	14.822	% 100,00	15.294	% 100,00

Iturria: EUSTAT.

Taula horietan azaldutako datuek honako gogoeta hauek egiteko bidea ematen dute:

- * Azpeitiko biztanleria, oro har, egonkortuta dago, baina igoera txiki batzuekin.
- * Biztanleriaren sorlekua kontuan hartuta:
 - Sorlekua EAEn eta, zehazkiago, Gipuzkoan duen biztanleria % 83,03koa da (2022), 2010ekoa eta 2015ekoa baino zertxobait txikiagoa.
 - Puntualki murrizten da sorlekua beste probintzia batzuetan duen biztanleriaren presentzia (% 0,81, 2010. eta 2022. urteen artean).
 - Puntualki handitzen da sorlekua atzerrian duen biztanleriaren presentzia (% 3,61, 2010. eta 2022. urteen artean).
- * Adinari dagokionez, biztanleria nabarmen egonkortuta dago 1. taulan azaldutako urkiletan. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da 65 urtetik gorako pertsonen presentziak gora egin duela (% 4,53, 2010. eta 2022. urteen artean).
- * Sexuari dagokionez, biztanleria nabarmen egonkortuta dago aztertutako aldian, eta gizonen presentzia handiagoa da aldi horretan.

2.- Azpeitiko egoera soziolinguistikoa.

2.1.- Euskararen ezagutza.

- * Egungo egoera orokorra eta haren bilakaera taula honetan ikus daitezke:

3. TAULA.
EUSKARAREN EZAGUTZA.
(2 urte edo gehiagoko pertsonak).

EZAGUTZA - MAILA	2011		2016		2021	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskaldunak	11.723	% 83,65	12.057	% 83,69	12.510	% 82,95
Ia-euskaldunak	1.119	% 7,98	976	% 6,77	1.194	% 7,92
Erdaldunak	1.173	% 8,37	1.374	% 9,54	1.377	% 9,13
Guztira	14.015	% 100,00	14.407	% 100,00	15.081	% 100,00

Iturria: EUSTAT.

- * Aztertutako aldian detektatutako joera batzuk, taula horretako datuetatik ateratakoak, honako hauek dira:
 - Euskaldunen kopurua eta ehunekoa pixkanaka eta pixka bat murriztu da. Horiek horrela, 2011. eta 2021. urteen artean, % 0,7 murriztu da.
 - Erdaldunen kopurua eta ehunekoa pixka bat igo da. 2011. eta 2021. urteen artean, % 0,76 igo da.

2.2.- Euskararen erabilera etxean.

- * Eguno egoera orokorra eta haren bilakaera taula honetan ikus daitezke:

4. TAULA
EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN
(2 urte edo gehiagoko pertsonak).

HIZKUNTZA	BIZTANLERIA	2006		2011		2016	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskara	Guztira	8.973	% 64,96	9.915	% 68,19	10.385	% 70,08
	Gizonak	4.465	% 32,32	4.982	% 34,26	5.205	% 35,13
	Emakumeak	4.508	% 32,63	4.933	% 33,93	5.180	% 34,96
Gaztelania	Guztira	2.630	% 19,04	3.262	% 22,43	2.900	% 19,57
	Gizonak	1.363	% 9,87	1.655	% 11,38	1.462	% 9,87
	Emakumeak	1.267	% 9,17	1.607	% 11,05	1.438	% 9,70
Aurreko biak	Guztira	2.149	% 15,56	1.133	% 7,79	1.084	% 7,32
	Gizonak	1.085	% 7,85	592	% 4,07	562	% 3,79
	Emakumeak	1.064	% 7,70	541	% 3,72	522	% 3,52
Beste bat	Guztira	62	% 0,45	230	% 1,58	449	% 3,03
	Gizonak	30	% 0,22	133	% 0,91	257	% 1,73
	Emakumeak	32	% 0,23	97	% 0,67	192	% 1,30
GUZTIRA	Guztira	13.814	% 100,00	14.540	% 100,00	14.818	% 100,00
	Gizonak	6.943	% 50,26	7.362	% 50,63	7.486	% 50,52
	Emakumeak	6.871	% 49,74	7.178	% 49,37	7.332	% 49,48

Iturria: EUSTAT.

- * Aurreko taulako datuen ondoriozko alderdi batzuk honako hauek dira:
- Euskara etxean erabiltzen dutenen ehunekoa handia da (% 70,08, 2016an), baina euskara dakiten ehunekoa baino askoz txikiagoa.
 - Etxean gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak gora egin du apur bat 2006tik 2016ra.

3.5.- Beste kontu batzuk.

179/2019 Dekretuan adierazitakoa kontuan hartuta (51. art.), euskararen “arnasguneak” eremu geografiko eta soziofuntzionalak dira, zeinetan euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan.

Euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa izateari buruzko baldintza betetzen du Azpeitiak. Baina ez, ordea, gizarte-harremanetan euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra izateari buruzkoa, etxean % 70,08k erabiltzen duela kontuan hartzen bada (2016).

V.- PLAN OROKORRAREN ALDAKETA HIZKUNTZA-EBALUAZIOK SALBUETSITAKO KASUREN BATEAN DAGOEN ALA EZ AZTERTZEA.

179/2019 Dekretuan (51. art.) ezarritakoaren arabera, ez da hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin behar jarraian azaltzen diren kasuetan, zeinak honako gogoeta hauek justifikatzen baitituzte:

1.- Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean plan edo proiektuetan.

Ebaluatzen den hirigintza-dokumentuak Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzen du, modu puntual eta hutsalean. Beraz, betetzen da dokumentua ebaluazio horretatik salbuestea justifika lezaketen baldintzetako lehena.

Era berean, planteatutako aldaketak funtsezkoak diren ala ez kontuan hartzea konplexuagoa da, termino horrek (funtsezkoa) ez baitu erreferente objektiborik. Nolanahi ere, Azpeitiko Plan Orokorrean oro har baloratzen badira eta osotasun horretan dituzten eraginak aintzat hartzen badira, ondoriozta daiteke ez direla funtsezko aldaketak, baizik eta puntualak eta urriak.

Edonola ere, zuhurtasun-arrazoiek justifikatzen dute hirigintza-dokumentuak aipatutako hizkuntza-ebaluazioa egin behar izatea.

2.- Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean.

Adierazitakoaren arabera, hizkuntza-ebaluazioaren faseetako bat hizkuntza-azterlanaren irismena zehazteari dagokio (179/2019 Dekretuaren 53. artikulua).

Plan Orokorraren Aldaketaren proposamenek hizkuntza-eragin nabarmenik izan dezaketen edo ez ebaluatzea du helburu.

Horregatik, arrazoizkoa da ebaluazio hori egitea, gutxienez aipatutako fasera arte, Aldaketaren hizkuntza-eraginen irismena zehazteko.

3.- Aurrez hizkuntza-ebaluazioa izan duen plan batetik eratorritako proiektuetan.

Salbuespen-kasu hori ez da aplikatzekoa aztertzen ari garen kasuan honako bi arrazoi hauengatik:

Batetik, sustatutako dokumentua hirigintza-plan bat da, eta ez proiektu bat. Bestetik, indarrean dagoen Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari ez zaio hizkuntza-ebaluaziorik egin.

VI.- PLAN OROKORRAREN ALDAKETAREN HIZKUNTZA-AZTELANAREN IRISMENA ZEHAZTEA.

1.- Adierazleak.

1.1.- Eraginak, udalerriko biztanle-kopuruan.

Etxebizitzetarako eta jarduera ekonomikoetarako eraikinak antolatzeke eta eraikitzeke hirigintza-aurreikuspenek Azpeitiko biztanleria haztea ekar dezakete.

Ebaluatu beharreko Plan Orokorraren Aldaketak 86 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusten du. Etxebizitza horiei lotutako biztanleria 215 pertsona ingurukoa dela zenbatetsi da, batez beste 2,5 pertsona/etxebizitza hartuta erreferentziazat (nahiz eta, egia esan, batez besteko hori apur bat txikiagoa den une honetan).

Biztanleriaren hazkundera txikiagoa izango da, pertsona horietako batzuk Azpeitikoak izango baitira. Nolanahi ere, pertsona horien zein ehuneko izango den udalerrikoa eta zein kanpotik etorritakoa zehazteko zailtasunak direla eta, ebaluazio honen ondorioetarako, igoera hori pertsona horien guztizkoari dagokiona izango da.

Aurrekoari gehitu behar zaio ekipamendu publikoaren aurreikuspenak (adinekoen egoitza) ez duela eragin soziolinguistikorik izango, lehendik dagoen beste bat ordeztzen duen neurrian.

1.2.- Eraginak, udalerria bisitatzen dutenen kopuruan.

Ez da uste HAPOk Aldaketaren proposamenek horrelako eraginik izango dutenik.

1.3.- Bestelako eraginak, udalerriaren egoera soziolinguistikoa.

Ez da uste hirigintza-proposamenek beste inolako eraginik izan dezaketenik Azpeitiko egoera soziolinguistikoa.

2.- Hizkuntza-eraginen irismena zehaztea.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako arloak zehaztutako parametroen arabera egindako hizkuntza-azterlanaren irismenaren analisiak ondorengo tauletan azaltzen den emaitza ematen du.

EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA	
Biztanleen kopurua gaur egun	14.818
Euskaldunak gaur egun kopurutan	12.401
Euskaldunak gaur egun %	% 83,69
Biztanle/bisitari berrien kopurua	215

BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA PORTZENTAJETAN	KOPURUTAN
Araba	% 0,32 1
Bizkaia	% 1,19 3
Gipuzkoa	% 84,47 182
Estatuko gainontzeko lurraldeak	% 6,05 13
Atzerrikoak	% 7,98 17
DENETARA	% 100

% 0,32		1			
EUSKARAREN EZAGUTZA JATORRIAREN ARABERA					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Estatuko gainerako lurraldeak	Atzerrikoak
Euskaldunak %	% 28,54	% 36,61	% 57,37	% 5,00	% 1,00
Besteak %	% 71,46	% 63,39	% 42,63	% 95,00	% 99,00
Euskaldunak	0	1	104	1	0
Besteak	0	2	77	12	17


BIZTANLE/BISITARI BERRIEN KOPURUA EZAGUTZAREN ARABERA						
Biztanle/Bisitari berrien kopurua		Etorriko diren erdaldunak	Etorriko diren euskaldunak			
215		109	106			
EUSKARA EZAGUTZA TASAK (ORAINGOAK ETA GEROKOAK) ETA KONPARAKETA						
Biztanle/bisitari berriak + ohikoak		Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak +berriak %	Euskaldunen % gaur egun	EPI%	EPI
15.033		12.507	% 83.20	% 83.69	% -0.49	-0.49

ONDORIOAK	
Guztira	14,818
Euskaldunak – Guztira %	83,69
Ama-hizkuntza euskara – Guztira %	74,23
Etxean erabiltzen den hizkuntza – Guztira %	72,08
Euskara Zerbitzua	BAI
ESEP	BAI
Faktorea biztanle kopurua	2,00
Faktorea Euskaldunak	5,00
Faktorea Lehen hizkuntza	5,00
Faktorea Etxeko hizkuntza	5,00
Faktorea Euskararen inguruko egituraketa	0,00
Hauskortasun indizea	8,67
Hiren eraginaren balioa	1,00
Euskararen proiektzio indizea	-0,49
Bilakaera indizea	0,51
TXOSTENA EGIN BEHARRA - IZAERA	HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA EZ

VII.- ONDORIOAK.

Aurreko epigrafean azaldutakoaren arabera, proiektuak ez du eraginik izango Azpeitiko eta eraginpeko hiri-inguruneko egoera soziolinguistikoan, ez eta euskararen egoeran ere, hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlan bat egitea eta eragin horiek prebenitzeko eta zuzentzeko neurriekin osatzea justifikatzen duenik.

Donostian, 2022ko abenduan.



Sin.: Mikel Iriondo

“2. HIRIGINTZA ARAUAK” dokumentua.

Garmendialde eremuari dagokion Hirigintza Arau Partikular bategin berria aurkeztuko da jarraian, proposatutako aldaketatik ateratzen dena.

Donostian, 2022ko abenduan

A handwritten signature in black ink, consisting of a series of loops and a long horizontal stroke at the bottom.

Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

"2. GARMENDIALDE" HE

I.- KOKALEKUA, MUGAK ETA AZALERA

Alde Zaharrarekin batera, udalerriko egungo hirigune nagusia da eta bat dator hasiera batean Erdi Aroko lehen asentamendua sortzeko aurreikusi zen lurraldearekin, Urola ibaiaren eskuin aldearen eta Ibaieder ibaiaren ezker aldearen artean dagoenarekin.

Alde Zaharraren hegoaldean dago eta Amue, Garmendipe, Sanjuandegi eta Arana Ingurunea eremuekin egiten du muga.

Azpeitiko "zabalgunea" da eta honako hauetan gauzatutako hiri-garapenak hartzen ditu: Harzubia; Zelaitxo; Goiko Errota; Pablo VI Egoitza; Perratzaileneko estrata; Zezendegiak; Organería Española; Jaka etxea; Agirre; Garate Anaiaren Auzunea; Villa Garmendiren eranskinak; Villa Garmendi; Garmendi Auzoa; Garmendi Berri; Perdillegi Aldea; Perdillegi Auzunea.

Aurrekoei, lehendik dauden ekipamendu-izaerako ezarpen garrantzitsuak gehitu behar zaizkie (Perdillegi, Zezen Plaza, San Martín egoitza eta Osasun Zentroa, Mariaren Zerbitzarien komentua, etab.).

Bere mugapena Plan Orokor honetako "D. Planoak" dokumentuko "II.1.4 Lurzoruaren sailkapena (Hiri-ingurunea). Hirigintza Eremuen Mugapena" planoan dago jasota.

Gutxi gorabehera, 188.340 m²-ko azalera du.

II.- ANTOLAMENDUKO IRIZPIDEAK ETA HELBURU OROKORRAK.

- * Eremuan lehendik dagoen bizitegi-garapena finkatzea, hiri-eraberritze eta -birmoldaketa jarduketa batzuekin osatuta.
- * Hiri-eraberritze eta -birmoldaketa jarduketa horiek, besteak beste, honako hauetan planteatutakoak dira:
 - Plan honetan mugatutako "2.1 Zezen Plaza" azpieremuan, bizitegi-garapen bat egitea aurreikusita dagoen tokian; antolamendu xehatua zehazteko Plan Berezi bat elaboratu eta izapidetzea planteatzen da.
 - Plan honetan mugatutako "2.2 Perdillegi" azpieremua ekipamendu-partzela gisa finkatzea aurreikusten da, udalerriko adineko pertsonen egoitza hartzeko helburuarekin.
 - Plan honetan mugatutako "2.3 San Martín" azpieremuan, bizitegi-garapen bat egitea aurreikusita dagoen tokian; antolamendu xehatua zehazteko Plan Berezi bat elaboratzea eta izapidetzea planteatzen da.
 - Plan honetan mugatutako "a.20.2.1" eta "a.20.2.2" partzelak.

- * Honako hauei dagozkien ekipamenduak finkatuko dira: Zezen Plaza, Osasun Zentroa, irakaskuntza-ekipamendua eta lehendik dauden instalazio erantsiak, eremuaren hegoaldean kokatutako Institutua barne, Perdillegi azpieremuan sartuta dauden helduen eskolak, musika-eskolak eta "euskaltegiak" gaur egun okupatzen dituzten lurzoruaren eta eraikinen salbuespenarekin.
- * Mariaren Zerbitzarien komentuarien partzela finkatzea, hirugarren sektoreko erabileretara bideratuta.
- * Bidegorri-sarea eremuan txertatzea, bai hegoaldean eta bai Urola ibaiaren eskuin aldean.
- * Eremu osoan berrurbanizatzeko ekintza puntualen aurreikuspena. Perdillegi eta San Martin azpieremuen ingurune bideen sestrak birdoitzeko proposatzen da, uholde-arriskua minimizatzeko xedez.
- * Ibaieder ibai-ibilguaren ezker aldean lehengoratzeko San Martin azpieremuan. Horretarako, ibai ondoan dagoen eraikina eraistea eta ezpona birnaturalizatu antolatzea aurreikusten da, oinezkoen ibai ondoko ibilbideari jarraipena emango dion bide batekin.
- * Eremua udalerriko hirigunean txertatze aldera, honako ekintza hauek aurreikusten dira: trenbide altxatu berriaren antolamendua, Garmendiako eremuarekiko lotura errazteko xedez; Amue eremurako zubi eta pasabide berriak antolatzea, haren hiri-eraldaketa planteatzen delako eta haren garapenean horiek egikaritzeko direlako.

III.- EGITURAZKO HIRIGINTZA ERREGIMENA.

1.- Kalifikazio orokorra

1.1.- A.20/2 EREMUA (Eraikuntza Intentsiboko Bizitegitarakoa)...(Azalera: 106.540 m²)

A.- Eraikuntza-baldintzak.

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

- * Hirigintza-garapen finkatuak:
 - Sestra gaineko eraikigarritasuna: finkatu egingo den irabazizko eraikuntza guztien egungo lerroak eta formaren ondoriozkoa.
 - Sestra azpiko eraikigarritasuna:
Sestra azpian baimendutako hirigintza-eraikigarritasuna sestra azpian baimendutako irabazizko eraikuntza guztiei atxikitakoa da, Plan Orokorraren honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan izaera orokorrarekin eta kontu horri dagokionez xedatutako irizpideen arabera.

- * Hirigintza-garapen berriak:
 - "2.1 Zezen Plaza" azpieroemua:
 - . Sestra gainero eraikigarritasuna:
 - * Eraikigarritasun berria: 7.150 m²(s)
 - * Aurreko eraikigarritasuna Harzubia hiribideko 11 bis eta 15-17 zenbakietan kokatutako eraikinei atxikitakoarekin osatzen da.
 - . Sestra azpiko eraikigarritasuna:

Azpieroemua osoan baimendutako hirigintza-eraikigarritasuna sestra azpian baimendutako irabazizko eraikuntza guztiei atxikitakoa da, Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan izaera orokorrearekin eta kontu horri dagokionez xedatutako irizpideen arabera.
 - "2.3 San Martin" azpieroemua:
 - . Sestra gainero eraikigarritasuna:
 - * Eraikigarritasun berria: 9.452 m²(s).
 - . Sestra azpiko eraikigarritasuna:

Azpieroemua osoan baimendutako hirigintza-eraikigarritasuna sestra azpian baimendutako irabazizko eraikuntza guztiei atxikitakoa da, Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan izaera orokorrearekin eta kontu horri dagokionez xedatutako irizpideen arabera.
 - "a.20/2.1" partzela (Harzubialde)
 - . Sestra gainero eraikigarritasuna:

"Harzubia" 43. Eremua deiturikoaren indarreko Xehetasun Azterketan eta 1997ko ekainaren 17an behin betiko onartutako Birpartzelazio Proiektuan aurreikusitako gehieneko inguratzailatik ateratzen diren eraikigarritasun-baldintzak finkatu dira.
 - . Sestra azpiko eraikigarritasuna:

Partzelan baimendutako hirigintza-eraikigarritasuna sestra azpian baimendutako irabazizko eraikuntza guztiei atxikitakoa da, Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan izaera orokorrearekin eta kontu horri dagokionez xedatutako irizpideen arabera.
 - "a.20/2.2" partzela (Harzubia, 25-29)
 - . Sestra gainero eraikigarritasuna: 3.288 m²(s).
 - . Sestra azpiko eraikigarritasuna:

Partzelan baimendutako hirigintza-eraikigarritasuna sestra azpian baimendutako irabazizko eraikuntza guztiei atxikitakoa da, Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan izaera orokorrearekin eta kontu horri dagokionez xedatutako irizpideen arabera.

b) Eraikuntzaren forma arautzeko parametroak: eraikinaren solairu-kopurua eta garaiera.

* Gehieneko eraikuntza-profila:

- Hirigintza-garapen finkatuak:

* Sestra gainean:

Lehendik dauden eta finkatu egin diren irabazizko eraikinen egungo formaren ondoriozkoa.

* Sestra azpian:

Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpide orokorrak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da.

- Hirigintza-garapen berriak:

. "2.1 Zezen Plaza" azpieremua

* Sestra gainean:

Izapidetu beharreko Plan Bereziaren espedientean antolamendu xehatuko mailarekin zehaztuko da. Hasiera batean, sestra gaine bost solairuko profila aurreikusten da, baina Harzubia hiribideko 11 bis eraikinari beste eraikin bat atxikitzen bazaio, Nazabal etxearen tokian, sei solairu arterainoko profila antolatzeko baimena emango da Plan Bereziaren.

* Sestra azpian: Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpide orokorrak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da.

. "2.3 San Martin" azpieremua

* Sestra gainean:

Izapidetu beharreko Plan Bereziaren espedientean antolamendu xehatuko mailarekin zehaztuko da. Hasiera batean behe-solairu eta bost solairuko profila aurreikusten da sestra gainean, baina profil hori gainditzeko baimena emango da ondoriozko bizitegi-partzelaren zatian.

* Sestra azpian: Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpide orokorrak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da.

. "a.20/2.1" partzela (Harzubialde)

* Sestra gainean: V.

* Sestra azpian: Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpide orokorrak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da.

. "a.20/2.2" partzela (Harzubia, 25-29)

- * Sestra gainean: VI.
- * Sestra azpian: Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpide orokorrak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da.
- * Eraikinaren garaiera hegala horizontaletara/guztira:
 - Hirigintza-garapen finkatuak: Lehendik dauden eta finkatu egin diren irabazizko eraikuntzen egungo formaren ondoriozkoa.
 - Hirigintza-garapen berriak:

. "2.1 Zezen Plaza" azpideremua

Izapidetu beharreko Plan Bereziaren espedientean antolamendu xehatuko mailarekin zehaztuko da. Hasiera batean, 16 m-ko garaiera aurreikusten da, baina Harzubia hiribideko 11 bis eraikinari beste eraikin bat atxikitzen bazaio, Nazabal etxearen tokian, garaiera hori gainditzeko baimena emango da Plan Bereziaren.

. "2.3 San Martin" azpideremua

Izapidetu beharreko Plan Bereziaren espedientean antolamendu xehatuko mailarekin zehaztuko da.

. "a.20/2.1" partzela (Harzubialde) 16,00 m.

. "a.20/2.2" partzela (Harzubia, 25-29): 19,15 m.

B.- Erabilera-baldintzak.

- * Erabilera-baldintza orokorrak Plan honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) "A.20" eremu orokorrerako izaera orokorrarekin xedatutakoak dira.
- * "2.1 Zezen Plaza" azpideremua:
 - Bizitegi-garapen berriari atxikitako eraikigarritasunaren baldintza arautzaileak:
 - . Lehendik dagoena eta eraitsi beharrekoa 640 m²(s)
 - . Bizitegi-eraikigarritasun berria:
 - * BOE erregimenari atxikitako bizitegi-eraikigarritasuna:1.157 m²(s)
 - * Etxebizitza tasatuen erregimenari atxikitako bizitegi-eraikigarritasuna:1.157 m²(s)
 - * Sustapen libreko bizitegi-eraikigarritasuna:3.471 m²(s)
 - * Bizitegi-eraikigarritasun berri totala:5.785 m²(s)
 - . Guztira (lehendik dagoena eta eraitsi beharrekoa + berria): 6.425 m²(s)

Eraikigarritasun hori Harzubia hiribideko 11 bis eta 15-17 zenbakietan kokatutako eraikinei, 30 etxebizitzarekin finkatzen direnei, atxikitako bizitegi-eraikigarritasunarekin osatzen da.

- Baimendutako gehieneko etxebizitza-kopurua arautzeko baldintzak:

. Lehendik daudenak eta eraitsi beharrekoak: 6 etxeb.

. Etxebizitza berriak:

- * BPES erregimenari lotutakoak:.....11 etxeb.
- * Etxebizitza tasatuen erregimenari lotutakoak:11 etxeb.
- * Sustapen librekoak:32 etxeb.
- * Berriak guztira:54 etxeb.

. Guztira (lehendik daudenak eta eraitsi beharrekoak + berriak):60 etxeb.

Etxebizitza horiek finkatu egingo diren Harzubia hiribideko 11 bis eta 15-17 zenbakietan kokatutako 30 etxebizitzekin osatuko dira.

- * "2.3 San Martin" azpieremua:

- Bizitegi-garapen berriari atxikitako eraikigarritasunaren baldintza arautzaileak:

. Bizitegi-eraikigarritasun berria:

- * BPES erregimenari atxikitako bizitegi-eraikigarritasuna:.. 281,20 m²(s)
- * Etxebizitza tasatuen erregimenari atxikitako bizitegi-eraikigarritasuna:8.920,80 m²(s)
- * Bizitegi-eraikigarritasun berri totala: 9.202 m²(s)

- * Eremuan proiektatutako gainerako hirigintza-eraikigarritasun berria -250 m²(t)-hirugarren sektoreko erabileretarako da.

1.2.- A.30/2 EREMUA (Garapen Txikiko Bizitegitarakoa)..... (Azalera: 10.303 m²)

A.- Eraikuntza-baldintzak.

a) Hirigintza-eraikigarritasuna:

- * Sestra gainerako eraikigarritasuna: finkatu egingo den irabazizko eraikuntza guztien egungo lerrokaduren eta formaren ondoriozkoa.
- * Sestra azpiko eraikigarritasuna:
Plan Orokor honetako Hirigintza Arau Orokorretan gai horren inguruan xedatutako irizpide orokorrak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da.

b) Eraikuntzaren forma arautzeko parametroak: eraikinaren solairu-kopurua eta garaiera.

* Gehieneko eraikuntza-profila:

- Sestra gainean: lehendik dauden eta finkatu egin diren irabazizko eraikinen egungo formaren ondoriozkoa.
- Sestra azpian: Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpide orokorrak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da.

* Eraikinaren garaiera hegala horizontaletara/guztira:

Lehendik dauden eta finkatu egin diren irabazizko eraikuntzen egungo formaren ondoriozkoa.

B.- Erabilera-baldintzak.

Erabilera-baldintza orokorrak Plan honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) "A.30" eremu orokorrerako izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.3.- E.10/2 EREMUA (Herri barruko bide nagusiak) (Azalera: 11.840 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.4.- E.20/2 EREMUA (Ibilbide Berezien Sarea (bizikletadunentzako - oinezkoentzako)) (Azalera: 2.645 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.5.- E.30/2 EREMUA (Trenbide sarea)..... (Azalera: 2.242 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.6.- F.10/2 EREMUA (Hiriko Espazio Libreak – SO)..... (Azalera: 1.446 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.7.- G.10/2.1 EREMUA (Ekipamendua)..... (Azalera: 5.925 m²)

Bat dator "2.2 Perdillegi" azpierrekuarekin:

A.- Eraikuntza-baldintzak.**a) Eraikigarritasun fisikoa:**

- * Jose Artetxe kaleko sestraren gaineko eraikigarritasuna: 13.000 m²(s)-ko gehieneko eraikigarritasuna baimendu da. Planeko planoetan eta ondorengo "b" idatz-zatian ezarritako eraikinaren forma arautzeko lerrokaduren eta parametroen ondoriozkoa izango da.
- * Jose Artetxe kaleko sestra azpiko eraikigarritasuna: Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpideak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da.

b) Eraikuntzaren forma arautzeko parametroak: eraikinaren solairu-kopurua eta garaiera.*** Sestra gainean:**

- Solairu-kopurua: VI Jose Artetxe kaleko sestrarekiko.
200 m²(s)-ko eraikigarritasun maximoak garaiera hori gainditzea baimenduko da.
- Eraikinaren garaiera: 25,00 m. Jose Artetxe kaleko sestrarekiko.
200 m²(s)-ko eraikigarritasun maximoak profil hori gainditzea baimenduko da.

- * Sestra azpian: Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpide orokorrak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoak dira.

B.- Erabilera-baldintzak.

Eremu honetako erabilera-baldintzak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentua) izaera orokorarekin xedatutakoak izango dira.

1.8.- G.10/2.2 EREMUA (Ekipamendua)..... (Azalera: 5.739 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorak" dokumentua) izaera orokorarekin xedatutakoak izango dira.

1.9.- G.10/2.3 EREMUA (Ekipamendua) (Azalera: 32.592 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.10.- G.10/2.4 EREMUA (Ekipamendua) (Azalera: 1.609 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

1.11.- H.10/4 EREMUA (Ibai Ibilguak) (Azalera: 7.459 m²)

Eraikuntza- eta erabilera-baldintza orokorrak Plan Orokor honetan ("B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentua) izaera orokorrarekin xedatutakoak izango dira.

2.- Sistema lokalen sarea arautzeko baldintza orokorrak.

Egiturazko honako baldintza hauek ezarri dira sistema lokalen sarea arautzeko:

- * "2.1 Zezen Plaza" azpieremuan sustatu beharreko Plan Bereziak 12 m-ko gutxieneko atzerapena errespetatuko du eraikin berrientzako Ibaider ibaiaren ibilguarekiko eta 10 m-koa Zezen Plazaren partzelarekiko, eta Harzubia hiribideari dagokionez, eraikin berrientzako izaera orokorrarekin finkatutako gehieneko lerroakadura. Halaber, Harzubia kalea Ibaider ibaiarekin lotzeko bide bat antolatzea aurreikusten da, etorkizunean Amue eremuarekiko lotura errazteko.
- * "2.3 San Martin" azpieremuan sustatu beharreko Plan Bereziak 15 m-ko gutxieneko atzerapena errespetatuko du Ibaider ibaiaren ibilguarekiko.
- * Uren Zuzendaritzak 2007/03/19an xedatutako baldintzak betez, eremuko interbentzioek "Uholde-arriskuaren mailaren arabera Lurzoruaren Erabilera Irizpideak" betetzeko behar diren neurriak hartu beharko dituzte. Horrela, bai jarduketaren garapenean eta bai haren bizitzan zehar, behar adinako babes-maila izatea eta haren segurtasuna ezartzea bermatuko da eta ez dio modu negatiboan eragingo ibai-ertzei eta ingurunearen uholde-arriskuari.

3.- Hirigintza-sailkapena.

Eremuko lur guztiak hiri-lur gisa sailkatu dira.

4.- Antolamendu xehatua zehazteko araubidea.

- * "2.1 Zezen Plaza" azpieremua: araubide hori xede horretarako sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak finkatutakoa izango da.
- * "2.3 San Martin" azpieremua: araubide hori xede horretarako sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak finkatutakoa izango da.
- * Eremuaren gainerako zatiko antolamendu xehatua Plan Orokor honetan zehaztutakoa da.

5.- Programazio- eta egikaritze-araubide orokorra.

A.- Egikaritzapen eta programazio orokorreko erregimena.

Eremuan planteatutako jarduketa berrien garapena eta egikaritzapena Plan Orokor honen proiektzio-epean gauzatuko dira.

B.- Garapen-plangintza elaboratu eta onartzeko epeak.

"2.1 Zezen Plaza" azpieremuaren Plan Berezia Plan Orokor honen indarraldiko lehen lauhilekoan elaboratu eta onartuko da.

"2.3 San Martin" azpieremuaren Plan Partziala bi urteko epean elaboratu eta onartuko da, Plan Orokor hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita.

C.- Sistema orokor publikoak lortu, egikaritu eta ordaintzeko erregimena.

Sistema orokorren sareko zuzkidura publikotara zuzendutako hirigintza-eremuko lurak, egikaritzapen- eta programazio-erregimen orokorrari dagokionez zehaztutakoaren arabera mugatu beharreko jarduketa integratuko eremuan edo eremuetan nahiz, a posteriori, egikaritz-unitatean edo -unitateetan txertatu edo atxikiko dira, haiek lortu, egikaritu eta finantzatzeko xedez.

"2.1 Zezen Plaza" eta "2.3 San Martin" azpieremuetan izapidetu beharreko Plan Bereziek identifikatuko dute edo dituzte behar den Jarduketa Integratuko Eremua edo Eremuak, aldi berean Hirigintzako Jarduketa Programaren edo Programen xede izango direnak.

IV.- HIRIGINTZA-ARAUDE XEHATUA.

1.- Kalifikazio xehatua.

A.- Azpieremu xehatu antolatuen tipologiai zehazteko eta mugatzeko baldintzak.

- * "2.1 Zezen Plaza" azpierzemua: baldintza horiek xede horretarako sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak finkatutakoak izango dira.
- * "2.3 San Martin" azpierzemua: baldintza horiek xede horretarako sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak finkatutakoak izango dira.
- * Eremuaren gainerakoa: baldintza horiek Plan Orokor honetako "D. Planoak" dokumentuko "II.2.1 Zonakatze Xehatua" planoan jasotakoak dira.

B.- Partzela antolatuen eraikigarritasun fisikoa.

- * "2.1 Zezen Plaza" azpierzemua:
 - Sestra ganean eta sestra azpian: antolamendu xehatutik ateratzen den azpierzemu bakoitzaren eraikigarritasun fisikoa xede horrekin azpierzemuan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak zehaztutakoa izango da.
- * "2.3 San Martin" azpierzemua:
 - Sestra ganean eta sestra azpian: antolamendu xehatutik ateratzen den azpierzemu bakoitzaren eraikigarritasun fisikoa xede horrekin azpierzemuan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak zehaztutakoa izango da.
- * Hiri-eraberritzeko edota ordezkapeneko jarduketan xede diren partzelak:
 - Sestra ganean eta sestra azpian: partzela horien eraikigarritasun fisikoa gai horren inguruan Arau Partikular honetan (aurreko III. epigrafeko "1.1" idatz-zatia) xedatutako irizpide orokorren ondoriozkoa da.
- * Partzela finkatuak:
 - Sestra ganean: partzela finkatuen eraikigarritasun fisikoa bat dator lehendik dauden eta finkatu egingo diren egungo lerrokadura eta formaren ondoriozkoarekin.
 - Sestra azpian: Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutako irizpideak zuzenean aplikatzearen ondoriozkoa da eraikigarritasun fisikoa.

C.- Partzeletako eraikuntzaren forma arautzeko baldintzak: eraikuntzaren garaiera eta solairu-kopurua.

- * Partzela finkatuak:
 - Sestra ganean: baldintza horiek egungo eraikuntzei atxikitakoak dira, egungo garaierarekin eta solairu-kopuruarekin finkatzen direnei atxikitakoak.
 - Sestra azpian: baldintza horiek Plan Orokor honetako "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan gai horren inguruan xedatutakoak dira.

- * Hiri-eraberritzeko edota ordezkapeneko jarduketan xede diren partzelak:
 - Sestra gainean eta sestra azpian: baldintza horiek Arau Partikular honetan (aurreko III. "1.1" idatz-zatia) gai honen inguruan xedatutakoak dira.
 - Modu osagarrian, "a.20/2.1" partzelan honako baldintza hauek aplikatuko dira:
 - . Estalki-erremateen eta solairuen mailak lehendik dauden eraikuntzenekin berdinduko dira, etxadia eratzen duten bloke-aurrealdeei jarraipena emanaz eta parametro hori finkatutako garaieraren kuantifikazioari nagusituz.
 - . Erabilera publikoko zortasunaren pean dagoen sotoko sabaiaren sestra etxadi barruko patioarenera doituko da.
 - . Aurreikusitako erabilera publikoko ataripeen sabai-azalera ezingo da murriztu.
 - . Sestra gainean dauden eta lur azpiko sotoek okupatzen dituzten ataripe eta eremu ez-eraikigarriak erabilera publikoko zortasunaren pean egongo dira.
 - . Eraikuntza-proiektu bakoitzak finkatu egingo den Plan Orokor hau formulatu eta indarrean sartu aurretik indarrean zegoen Birpartzelazio Proiektuan xedatutako zortasunak hartuko ditu kontuan.
 - Partzela horietako bakoitzari buruzko Xehetasun Azterketa bat formulatu eta onartuko da, haietako bakoitzaren ezinbesteko eta behin betiko eraikuntza-baldintzak zehazteko xedez.
- * "2.1 Zezen Plaza" azpieremua:

Baldintza horiek Arau Partikular honetan (aurreko III. epigrafeko "1.1" idatz-zatia) xedatutakoak dira, bere antolamendu xehatua zehazteko xedez azpieremuan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak birdoitutakoak.

Modu osagarrian, honako hauek aplikatuko dira:

- Harzubia hiribidearen aurrealdean antolatzen den eraikuntzak lehendik dauden eta atxikita izango dituen eraikinen profila eta garaiera izango ditu, aipaturiko kalearen aurrealdeko lerrokadurekin jarraituz.
- Eraikuntza berriak 12 m-ko gutxieneko atzerapena izango du Ibaieder ibaiarekiko eta 10 m-koa Zezen Plazaren partzelarekiko, bai sestra gainean eta bai lur azpian, eta lur-zerrenda hori jabari eta erabilera publikotarako izango da.
- Planak Ibaieder ibaiaren aurrealdean antolatzen dituen blokeetan soilik baimenduko da behe-solairuko etxebizitza-erabilera, eta Harzubia hiribidera ematen duten behe-solairuak merkataritza-erabilerara bideratuko dira.

- Baldin eta xedatutako gehieneko eraikigarritasuna gainditzen ez bada, batez bestekoa baino tamaina txikiagoko apartamentuak edo etxebizitzak eraikitze baimena emango da, erabilera horretara bideratutako azalerak goiko solairuetako azalera eraikigarri osoaren % 10 ez gainditzeko eta ezarritako gehieneko etxebizitza-kopuruaren % 10 ez gainditzeko mugapenarekin. Xede horietarako ez da gainditutzat joko kalifikazio orokorreko erabilera-baldintza orokorretan xedatutako erabilera-intentsitatea.
- * "2.3 San Martin" azpieremua:
Baldintza horiek Arau Partikular honetan (aurreko III. epigrafeko "1.1" idatz-zatia) xedatutakoak dira, bere antolamendu xehatua zehazteko xedez azpieremuan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak birdoitutakoak. Plan Berezi horrek, batez ere, garajeetarako irisgarritasun-baldintzak ebatziko ditu. aplikatu beharreko Plan Hidrologikoan xedatutakoaren arabera.

D.- Antolatutako azpieremu xehatuaren erabilera-baldintzak.

- * Baldintza-erabilerak, oro har, Plan honetako Hirigintza Arau Orokorretan partzelamota bakoitzerako izaera horrekin xedatutakoak izango dira.
- * "2.1 Zezen Plaza" azpieremuan ateratzen diren partzelen erabilera-baldintzak bertan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak zehazten dituenak izango dira, bere antolamendu xehatua zehazte aldera.
- * "2.3 San Martin" azpieremuan ateratzen diren partzelen erabilera-baldintzak bertan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak zehazten dituenak izango dira, bere antolamendu xehatua zehazte aldera.
Ondoriozko eraikineko behe-solairuan bizitegi-erabilera nagusiarekin bateragarriak diren merkataritza-erabilerak edo hirugarren sektorekoak jarriko dira, bizitegi-erabilerako ezkaratzak eta laguntza-gelak barne, 250 m²(s)-ko eraikigarritasunarekin. Etxebizitzak ere egongo dira aplikatu beharreko Plan Hidrologikoko uholde-arriskuko kotaren gainetik kokatuta.
- * "a.20/2.1" partzelan baimendutako gehieneko etxebizitza-kopurua: 16 etxebizitza.

E.- Jabari-baldintza partikularrak.

- * "2.1 Zezen Plaza" azpieremua: jabari-baldintza horiek bertan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak finkatutakoak izango dira.
- * "2.3 San Martin" azpieremua: jabari-baldintza horiek bertan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak finkatutakoak izango dira.
- * Eremuaren gainerakoa: egungo jabari-baldintzak finkatu egingo dira, batetik, Plan Orokor hau formulatu eta indarrean sartu aurretik indarrean zegoen hirigintza-plangintzatik eta, bestetik, bere garapen eta egikaritzapenerako sustatutako proiektuetatik ateratako baldintzetan.
Testuinguru horretan, finkatu egingo da "a.20" tipologiako bizitegi-partzelen gainean xedatutako gainazaleko erabilera publikoko zortasuna, ibilbide berezien

(bizikletentzakoa – oinezkoentzakoa) sarearen konfigurazio orokorraren xedeetarako. Horren arabera, sare horren jakineko zati bat zortasun horrek eragiten dien bizitegi-partzeletako lurrei atxikita dago. Zortasunaren eraginpeko azalera 629 m²-koa da, gutxi gorabehera.

F.- Eraikinen atzerapena ibai-ibilguekiko.

Eraikinaren atzerapena Urola ibaiarekiko gaian aplikatu beharreko xedapenetan ezarritako irizpideetara doituko da eta, bereziki, indarrean dagoen EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurralde Arloko Planera (isurialde kantauriarra).

2.- Hiri-lurraren kategorizazioa.

"2.1 Zezen Plaza" azpieremuko lurrak bertan sustatu beharreko Plan Bereziak zehazten dituen hiri-lur kategorietan txertatuko dira.

"2.3 San Martin" azpieremuari dagozkion lurrak bertan sustatu beharreko Plan Bereziak zehazten dituen hiri-lur kategorietan txertatuko dira.

"a.20/2.1" eta "a.20/2.2" partzeletako lurrek hiri-lur finkatugabearen izaera dute eraikigarritasun haztatua handitzearen ondorioz.

Hirigintza Eremu honetako gainerako lurrek hiri-lur finkatuaren izaera dute, eraikigarritasun haztatua handitzearen ondorioz hiri-lur finkatugabetzat jo behar direnek izan ezik.

V.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK.

Dagozkion xedeetarako, kontuan izan behar da Urola ibaia eta Ibaieder ibaia Eremuaren inguruan daudela.

Plan Orokor honetan mugatutako eremu akustikoei lotutako baldintzak aplikatuko dira.

"2.3 San Martin" azpieremuan sustatu beharreko Plan Bereziak soinu-inpaktuaren azterlana izapidetzea behar du.

Eremuan kutsatuta egon litezkeen lurzoruen tratamendua, bestalde, gaian aplikatu beharreko xedapenetan ezarritako irizpideetara egokituko da.

Kontuan hartuko da, bereziki, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko 53. artikuluan xedatutakoa, batez ere 2.1 eta 2.3 azpieremuetako jarduketetan.

VI.- APARTEKO ERAIKINAK ETA/EDO ELEMENTUAK KATALOGATZEKO BALDINTZAK.

Plan Orokor honetako Katalogoan jasota dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Monumentu deklaratzeko proposatutako Interes Historiko-Arkitetoniko gisa Katalogatutako elementuen modalitatean Osasun Zentroari dagokion eraikina (Epaitegi eta Kartzela ohia).

VII.- EGIKARITZE-ARAU BIDE ESPEZIFIKOA.**1.- Urbanizazio-erregimena.**

- * "2.1 Zezen Plaza" azpierredua.

Erregimen hori, alde batetik, azpierreduan sustatu beharreko Plan Berezian eta, bestetik, bere garapenaren eta egikaritzapenaren xedeetarako (hirigintzako jarduketa-programa, etab.) sustatu beharreko proiektuetan zehaztutakoa izango da.

- * "2.3 San Martin" azpierredua.

Erregimen hori, alde batetik, azpierreduan sustatu beharreko Plan Berezian eta, bestetik, bere garapenaren eta egikaritzapenaren xedeetarako (hirigintzako jarduketa-programa, etab.) sustatu beharreko proiektuetan zehaztutakoa izango da.

- * "a.20/2.1" partzelan planteatutako antolamenduaren garapenaren eta egikaritzapenaren testuinguruan partzela horretako espazio publiko eta pribatu guztiak osotasunean urbanizatuko dira, erabilera publikoko zortasunaren pean dagoen partzela pribatuko urbanizazioa barne, etxadiko patioaren tratamenduarekin eta partzelaren aurreko urbanizazioarekin bat etorritik eta "43 Harzulia" eremuan bere garaian sustatutako Urbanizazio Proiektuaren arabera.

- * "a.20/2.2" partzelan aurreikusitako interbentzioak egikaritzeak Harzulia kalera ematen duen espaloia berrurbanizatzeko ekarriko du, sestra kalearen mailara altxatuz.

- * San Martin egoitzan planteatutako jarduketan garapenaren eta egikaritzapenaren testuinguruan, Harzulia hiribideko eta Zelaitxoren atzealdeko partzela-aurrealdeak urbanizatuko dira, Urbanizazio Obra Osagarrien Proiektuaren bitartez.

- * Halaber, behar diren berrurbanizazio-obrak egingo dira berriki egindakoei jarraipena emanaz, egungo saihezbidearen paraleloan doan bizikletentzako-oinezkoentzako bide edo bidegorriaren antolamenduari dagozkionak barne, Sanjuandegiko bidegurutzearen eta Garmendiren artean.

2.- Hirigintza-antolamenduarekin bat ez datozen eraikinak.

- * "2.1 Zezen Plaza" azpierredua: Plan Bereziari dagokio hirigintza-antolamenduarekin bat ez datozen eraikinak eta erabilerak identifikatzeko.

- * "2.3 San Martin" azpieremua: formulatu beharreko Plan Bereziari dagokio hirigintza-antolamenduarekin bat ez datozen eraikinak eta erabilerak identifikatzea.
- * Eremuaren gainerako zatia: ez da deklaratu antolamenduarekin bat ez datorren eraikinik eta erabilerarik.

3.- Egikaritzapeneko lege- eta hirigintza-araubidea.

- * "2.1 Zezen Plaza" azpieremua:
Erregimen hori, batetik, bertan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari eta, bestetik, bere garapenerako eta egikaritzapenerako formulatu beharreko proiektuetan zehazten dena izango da.

Azpieremuan ateratzen diren urbanizazio-karga guztien (garapen berriak ezartzeko eta udal-sare orokorrek behar dituzten zerbitzu-azpiegitura guztien lur azpiko konexio guztiak ezartzeko ezinbestekoak) egikaritzapena eta ordainketa bertan aurreikusitako hirigintza-garapenen betebeharrak izango dira.

- * "2.3 San Martin" azpieremua:
Erregimen hori, batetik, bertan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari eta, bestetik, bere garapenerako eta egikaritzapenerako formulatu beharreko proiektuetan zehazten dena izango da.

Azpieremuan ateratzen diren urbanizazio-karga guztien (garapen berriak ezartzeko eta udal-sare orokorrek behar dituzten zerbitzu-azpiegitura guztien lur azpiko konexio guztiak ezartzeko ezinbestekoak) egikaritzapena eta ordainketa bertan aurreikusitako hirigintza-garapenen betebeharrak izango dira.

- * Eremuaren gainerako zatian planteatutako garapen berrien egikaritzapena egokitu egingo da:

- Zuzkidura-jarduketan berezko baldintzetara, baldin eta haien eraginpeko lurrek eraikigarritasun haztatua handitzearen ondorioz hiri-lur finkatugabeen berezko baldintzatzaileei erantzuten badiete.

Baldintza horiek bete behar dituzte, besteak beste, "a.20/2.1" ("AD.2.1") eta "a.20/2.2" eta ("AD.2.2") partzeletan proiektatutako jarduketek.

- Edo jarduketa isolatuen berezko baldintzetara, baldin eta haien eraginpeko lurrek hiri-lur finkatuen berezko baldintzatzaileei erantzuten badiete.

Jarduketa horiek guztiak zuzkidura publikotara zuzendutako lurak lagatzeko jarduketekin eta urbanizazio osagarria egikaritzekoarekin osatuko dira kasu bakoitzean xedatutako baldintzetan (partzelen aurrealdeetako espaloiak, aparkaleku publikoak, etab.).

- * "a.20/2.1" partzelan aurreikusitako eraikuntzaren egikaritzapen zuzena aurreikusten da, bere garaian "43 Harzubia" eremurako sustatu eta onartutako Xehetasun Azterketan, Urbanizazio Proiektuan eta Birpartzelazio Proiektuan xedatutako baldintzetan. Egikaritzapen horren aurretik lehendik dauden eraikinak eraitsiko dira.

- * "2.2 Perdillegi" azpierzemuko ondoriozko ekipamendu-partzelan udalerriko adinekoeztako egoitza ezartzea aurreikusten da. Partzela horretan, arloan aplikatu beharreko xedapenetan ezarritako irizpideen arabera jokatuko da eta eraikuntza-proiektua egin beharreko obrek garatzen duten urbanizazio-obra osagarrien eraikuntza-proiektuarekin osatu beharko da.

VIII.- INGURUMEN-ARLOKO ETA PAISAIA-INTEGRAZIOKO NEURRIAK.

- * Plan Orokor honetako Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlanean aurreikusitako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak eta Azterlan horretan jasotako berrikuspen-programari atxikitako neurriak aplikatuko dira.
- * Eremuaren hirigintza-garapenaren egikaritzapena "B.1 Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuko 7. artikuluan aipaturiko udal-ordenantzetan honako gai hauen inguruan xedatutako irizpideetara doituiko da: atmosferaren eta airearen kalitatea babestea obrek irauten duten bitartean; sortzen diren hondakinak bildu, tratatu eta biltegitratzea; obren ondoriozko zarata, hautsa eta abar ezabatu edota minimizatzea; Ordenantza horiek arautzen dituzten eta aplikatu beharrekoak diren beste edozein kontu.

IX.- GRAFIKOAK.

2.- KUDEAKETA-BALDINTZAK

- * 2.1 zuzkidura-jarduketa

X.- BIZITEGI-ERAIKIGARRITASUN BABESTUAREN BETETZE-MAILA OROKORRA.

Hirigintza-estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuko 15.2 artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, eremu eta azpierzemuen arteko honako transferentzia hauek aurreikusten dira:


	<u>Gutxiezigkoa</u>		<u>Gehiezigkoa</u>	
	BOE	ET	BOE	ET
- Izarra eremua:	- 277,25	- 8.799,00	-	-
- Santutxo azpierzemua:	-	-	-	+ 1.548,00
- San Martin azpierzemua:	-	-	+ 281,20	+ 6.693,20
- Amue eremua:	-	-	-	+ 562,00

Garmendialde eremuari dagozkion transferentziak San Martin azpierzemuan ebatziko dira (2013ko HAPOn Perdillegin).

A.U. 2 GARMENDIALDE **A.U. 2 GARMENDIALDE**
2.1 HORNIDURAKO JARDUKETA **ACTUACIÓN DE DOTACIÓN 2.1**




JARDUKETA INTEGRATUKO EREMUAK	J.I.n.		A.A.I.	AMBITO DE ACTUACION INTEGRADA
HORNIDURA JARDUKETAKO EREMUAK	H.J.		A.A.D.	AMBITO DE ACTUACION DE DOTACION
GARATZEKO PLANGINTZAREN BIDEZ GARATZEKO (PLAN BEREZIA)	P.B.		P.E.	A.U. A DESARROLLAR POR PLANEAMIENTO DE DESARROLLO (PLAN ESPECIAL)
ORDENAZIOZ KANPOKO ERAIKUNTZAK	O.K.		F.O.	EDIFICIOS FUERA DE ORDENACION




2 GRAFIKOA **GRAFICO 2**
KUDEAKETAKO BALDINTZAK **CONDICIONES DE GESTIÓN**

A.U. 2 GARMENDIALDE **A.U. 2 GARMENDIALDE**
2.2 HORNIDURAKO JARDUKETA **ACTUACIÓN DE DOTACIÓN 2.2**



JARDUKETA INTEGRATUKO EREMUAK	J.I.n.		A.A.I.	AMBITO DE ACTUACION INTEGRADA
HORNIDURA JARDUKETAKO EREMUAK	H.J.		A.A.D.	AMBITO DE ACTUACION DE DOTACION
GARATZEKO PLANGINTZAREN BIDEZ GARATZEKO (PLAN BEREZIA)	P.B.		P.E.	A.U. A DESARROLLAR POR PLANEAMIENTO DE DESARROLLO (PLAN ESPECIAL)
ORDENAZIOZ KANPOKO ERAIKUNTZAK	O.K.		F.O.	EDIFICIOS FUERA DE ORDENACION



2 GRAFIKOA **GRAFICO 2**
KUDEAKETAKO BALDINTZAK **CONDICIONES DE GESTIÓN**

“3. EGIKARITZAPENA
ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO
JARRAIBIDEAK ETA JARDUKETA-PROGRAMA” dokumentua

AURKIBIDEA

I.-	Dokumentu honen xedea	2
II.-	Hirigintza-antolamenduko proposamenak, eta egikaritzearen xedeetarako jarduketa-modalitatearekin edo -modalitateekin duten lotura.	2
III.-	Hirigintza-eraikigarritasunaren esleipena.....	2
IV.-	Aurreikusitako lanak proiektatzea, egikaritzea eta ordaintzea.....	3
V.-	Zuzkidura publikoko lurak lagatzea eta behar diren lurak lortzea.	3
VI.-	Hirigintza-antolamendua egikaritzearen programazioa.	4

I.- DOKUMENTU HONEN XEDEA.

Dokumentu honen xedea plan honetan eraginpeko eremurako planteatutako hirigintza-antolamendua antolatzeke eta kudeatzeko jarraibideak zehaztea da, bai eta haren programazioa ere eta, zehazkiago, honako gai hauekin lotutakoak:

- * Hirigintza-antolamenduko proposamenek egikaritzearen xedeetarako jarduketa-modalitatearekin edo -modalitateekin duten lotura.
- * Hirigintza-eraikigarritasunaren esleipena.
- * Herri- eta urbanizazio-lanak eta horien ordainketa-betebeharren banaketa eta egikaritzea.
- * Egikaritzearen programazioa.

Hurrengo epigrafeetan esku hartzeko jarraibideak azaltzen dira.

II.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUKO PROPOSAMENAK, ETA EGIKARITZEAREN XEDEETARAKO JARDUKETA-MODALITATEAREKIN EDO -MODALITATEEKIN DUTEN LOTURA.

Indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritako irizpideekin bat etorritz, planteatutako antolamendu-proposamenen egikaritzea honako jarduketa-modalitate hauei lotuta dago:

- * Perdillegi azpierzemua gauzatzeko esku-hartzea:

Jarduketa isolatua da. Ez da urbanizazio-lanik behar, ez da inolako hirigintza-eraikigarritasunik aurreikusten, eta ondoriozko partzela zuzkiduratara bideratuko da.
- * San Martin azpierzemua egikaritzeko esku-hartzea:

Prozesuaren jarraipenean (Plan Bereziaren, Hirigintzako Jarduketa Programaren eta abarren izapidetzea) zehaztuko dira kontuan hartu beharreko egikaritze- eta kudeaketa-baldintzak. A priori, jarduketa integratu bat identifikatzea aurreikusten da.

Jarduketa horien xede diren eremuak grafikoki azaltzen dira II.1 planoan.

III.- HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNAREN ESLEIPENA.

Antolatutako hirigintza-eraikigarritasuna San Martin azpierzemurako ezarritakoa da: 9.452 m²(s) sestra gainean, sestra azpian baimendutakoaz gain.

Plan honek baimendutako hirigintza-eraikigarritasunaren edo eraikigarritasun haztatuaren esleipena bat dator indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritako irizpideekin. Hala, San Martin azpieremuaren jabetzari dagokio hori guztia, egikaritze-eremuaren eraikigarritasun haztatuaren % 15, urbanizazio-kargarik gabe, udalari lagatzearen kalterik gabe. Aztertzen ari garen kasuan, lurzorua jabetza udalarena da eta, beraz, Udalari dagokio sestra gainean eta azpian antolatutako hirigintza-eraikigarritasun osoa.

IV.- AURREIKUSITAKO LANAK PROIEKTATZEA, EGIKARITZEA ETA ORDAINZEA.

1.- Aurreikusitako urbanizazio-lanak proiektatzea eta egikaritzea honako xede eta irizpide hauei egokituko zaie.

* San Martin azpieremua urbanizatzeko lanak:

- Udalak edo garapena sustatzen duenak sustatu eta izapidetu beharreko urbanizazio-proiektuaren xede izango dira. Azpieremutik kanpo zabalduko da, behar diren sestrak egokitzeko.
- Udal jabetzaren azpieremua sustatzen duenak egikarituko ditu, oso-osorik.

* Urbanizazio-lan osagarriak Perdillegi azpieremuan:

- Adinekoen egoitza berria eraikitzeke lan osagarritzat hartuko dira. Proiektu hori egoitzaren sustapenak sustatuko du.
- Egoitza sustatzen duenak egikarituko ditu, oso-osorik.

2.- Aurreikusitako urbanizazio-lanak ordaintzea.

Bi azpieremuak egikaritzearen ondoriozko urbanizazio-kargen kostuak ordaintzea, kasu bakoitzean, horietako bakoitzaren sustapenari dagokio.

V.- ZUZKIDURA PUBLIKOKO LURRAK LAGATZEA ETA BEHAR DIREN LURRAK LORTZEA.

Bi azpieremuak osatzen dituzten lurrak udalarenak dira. Hala ere, proposatutako antolamenduaren garapenaren ondorioz sortutako zuzkidura publiko gisa kalifikatutako partzelak Azpeitiko Udalari doan lagako zaizkio, behar bezala urbanizatuta. Ondoriozko bideak (galtzadak, aparkalekuak, espaloiak, oinezkoentzako ibilbideak...), espazio libreak (lorategiak, plazak...) eta ekipamendu-partzelak (bereziki, eguneko zentrorako eta adinekoen egoitzarako ekipamendua) dira.

Ondoriozko partzela horien esleipena birpartzelazio-proiektuetan formalizatuko da.

VI.- HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA EGIKARITZEAREN PROGRAMAZIOA.

Planteatutako antolamendua honako irizpide hauen arabera egikaritzea proposatzen da:

- * San Martin azpieremuaren Plan Berezia onartzea lau urteko epean, plan hau onartu eta indarrean jartzen denetik kontatzen hasita. Hori egikaritzeko, egungo adinekoen egoitza Perdillegira lekualdatu behar da.
- * San Martin azpieremuaren Hirigintzako Jarduketa Programa (HJP) onartzea urtebeteko epean, aipatutako Plan Berezia onartu eta indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.
- * San Martin azpieremua urbanizatzeko proiektua onartzea, aipatutako HJP onartu eta indarrean jartzen denetik urtebeteko epean.
- * San Martin azpieremuaren Birpartzelazio Programa onartzea urtebeteko epean, aipatutako HJP onartu eta indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.
- * Perdillegiko adinekoen egoitza eraikitzeke eta urbanizatzeko lan osagarrien proiektua onartzea, plan hau onartu eta indarrean jartzen denetik urte eta erdiko epean.
- * San Martin azpieremua urbanizatzeko lanak egikaritzea zortzi urteko epean, plan hau onartu eta indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.
- * Perdillegiko adinekoen egoitza eraikitzeke eta urbanizatzeko lan osagarriak egikaritzea lau urteko epean, plan hau onartu eta indarrean jartzen denetik kontatzen hasita.

Donostian, 2022ko abenduan.



Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

**“4. BIDERAGARRITASUNA ETA EKONOMIA-JASANGARRITASUNA”
dokumentua**

“4.1. EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNEKO AZTERLANA”

AURKIBIDEA

I.-	Dokumentuaren xedea.....	1
II.-	Ebaluazio ekonomikoa egiteko premisa orokorrak.	1
III.-	Erabileren haztapen-koefizienteak eta hondar-balioa.	1
IV.-	Urbanizazio-lanak eta horien balorazioa.....	2
V.-	Hirigintza-garapenaren ekonomia-bideragarritasunaren memoria.	3

I.- DOKUMENTUAREN XEDEA.

Dokumentu honen helburua plan honen hirigintza-proposamenen ekonomia-bideragarritasuna aztertzea da.

II.- EBALUAZIO EKONOMIKOA EGITEKO PREMISA OROKORRAK.

Premisa horietako batzuk indarrean dagoen lege-esparruan ezarritakoak dira, eta eragina dute dokumentu honen xede den azterketa ekonomikoan. Esparru hori, besteak beste, honako xedapen hauek osatzen dute:

- Administrazio zentralak sustatu eta EAEn indarrean daudenak:
 - . Lurzoru eta hiri-birgaitze Legearen testuategia, 2015eko urriaren 30eko Legegintzako Errege Dekretuaren bidez (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua) onartua.
 - . Lurzoru Legearen balorazioen erregelamendua (1492/2011 Errege Dekretua, 2011ko urriaren 24koa).
- Euskal Autonomia Erkidegoan sustatu direnak eta indarrean daudenak:
 - . Lurzoru eta Hirigintza Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa (2/2006 Legea).
 - . 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza aldatzen duena.

III.- ERABILEREN HAZTAPEN-KOEFIZIENTEAK ETA HONDAR-BALIOA.

Duela gutxi onartutako 2022ko ekainaren 30eko Aginduaren arabera, lurzoru urbanizatuaren gehienezko hondar-balio hauek ateratzen dira (Hb):

- BPESen Hb: $3 \times 80 \times 1,17625 \times 1.808,53 \times 0,2 = \dots\dots\dots 102.110 \text{ €}$
- BPETen Hb: $83 \times 80 \times 1,17625 \times 2.285,77 \times 0,25 = \dots\dots\dots 4.463.137 \text{ €}$
- BPESen garajeen Hb: $3 \times 33 \times 650 \times 0,2 / 1,10 = \dots\dots\dots 11.700 \text{ €}$
- BPETen garajeen Hb: $83 \times 33 \times 640 \times 0,25 / 1,10 = \dots\dots\dots 398.400 \text{ €}$
- GUZTIRA = $\dots\dots\dots 4.975.347 \text{ €}$

Bestalde, haztapen-koefiziente hauek ateratzen dira:

ERABILERA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA	HONDAR-BALIOA	HAZTAPEN- KOEFIZIENTEA
BPES	361,70	1,00
BPET	571,44	1,58
BPES garajeak	130,00	0,36
BPET garajeak	160,00	0,44

IV.- URBANIZAZIO-LANAK ETA HORIEN BALORAZIOA.

1.- Sarrera.

Une honetan gutxi gorabehera baloratu beharreko jarduketa eta lanen zerrenda honako hau da:

- * Perdillegi urbanizazio-lan osagarriak egikaritzea: espazio libreetarako partzelak egikaritzea, ordainsariak eta bestelako gastuak barne.
- * San Martin urbanizatzeko lanak egikaritzea: izapidetu beharreko plan bereziaren ondoriozko urbanizazioa egikaritzea, ordainsariak eta bestelako gastuak barne.

2.- Perdillegi urbanizazio-lan osagarriak.

Esku-hartzeak aurreikusten du aurreikusitako espazio libreetarako bi partzelak (426 m² eta 229 m², hurrenez hurren) urbanizatzea, eta behar diren zerbitzu-azpiegiturak eta, bereziki, adinekoen egoitza berrirako harguneak gauzatzea.

Horrela, antolatutako espazio libreen eta berdeguneen zoladura edo azaleko tratamendua aurreikusten da, baita beharrezko zerbitzu-sareak hobetzea eta/edo ordezkatzeari ere.

Lehenengo hurbilketa batean, egikaritze-kostuen zenbatespen bat egiten da jarraian, plangintzaren fase honi dagokion bezala; hala ere, kostu horiek zehaztasun handiagoz zehaztu beharko dira formulatu beharreko proiektuetan.

Hala, espazio libreetarako azalera 655 m²-koa da eta, beraz, batez besteko urbanizazio-kostua 100 €/m²-koa dela kalkulatuta (lorenzaintza eta zuhaitz-landaketa, zoladura, argiteria publikoa, saneamendua berriz jartzea, zerbitzu-azpiegiturak, etab.), egikaritze materialeko (EM) 65.500 euroko aurrekontua duen urbanizazio-kostua ateratzen da. Horrek esan nahi du kontrata bidezko egikaritzea 77.945 euro direla BEZik gabe.

Urbanizazio-lan osagarriak adinekoen egoitza eraikitze proiektuan jasoko dira.

2.- San Martin urbanizatzeko lanak.

Azpieremurako proposatutako antolamenduaren arabera, 86 etxebizitza berri (3 babes publiko sozialekoak –BPES– eta 83 babes publiko tasatukoak –BPET–) antolatu behar dira, 107 m²(s) ingurukoak, batez beste (80 m² erabilgarri).

Bestalde, antolamendua Plan Berezi bati lotzen bazaio ere, eraisteko eta urbanizatzeko kostu hauek aurreikusten dira, a priori:

* ERAISPENAK.

Zabortegietarako garraioa eta kanonak barne.

7.500 m²(s) x 50 €/m²(s) = 375.000 €

* AZALEKO URBANIZAZIOA.

Azal gogorraren tratamendua, zuhaizti, drainatze, argi eta altzariekin.

5.460 m² - 1.512 m² (Bloke berriak) = Gutxi g. 4.000 m²-ko azalera garbia.

4.000 x 100 €/m² = 400.000 €

* IBAI ERTZAREN TRATAMENDUA.

Harri-lubeta birlandatuak egitea, gainaldean errematea duen petrilarekin eta bideekin.

80 ml. x 2.000 €/ml = 160.000 €

* E.M. GUZTIRA..... 935.000 €

* E.M. GUZTIRA + % 19 GO eta MI (BEZik gabe)..... 1.112.650 €

V.- HIRIGINTZA-GARAPENAREN EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNAREN MEMORIA.1.- Sarrera.

7/2015 LEDan ("22.5" art.) ezarritakoaren arabera, *hiri-ingurunearen gaineko jarduketak, horiek hirigintza-eraldaketakoak izan edo ez, antolatu eta egikaritzeko bideragarritasun ekonomikoa (errentagarritasunari dagokionez) bermatuko duen memoria egin behar da; kontserbatzeko lege-eginbeharraren mugak betetzen dituela eta jarduketak eragindako onuren eta kargen arteko oreka jarduketa-eremuan sartutako jabeentzat egokia dela ere bermatu behar da.*

Horiek horrela, plan honetan adierazitakoarekin bat etorritik, bere proposamenek, besteak beste, Perdillegi adinekoen egoitza berria kokatzea eta San Martinen babes publikoko etxebizitzak bizitegi-garapena aurreikustea dakarte, indarrean dagoen plangintzan horri buruz proposatzen den guztia alderantzizkatuz.

Testuinguru horretan, eta memoria ekonomiko hau egiteko, erreferentziazko hirigintza-parametroak, alde batetik, egungo errealtatearekin lotutakoak dira eta, bestetik, plan honen ondoriozko hirigintza-, ingurumen- eta funtzio-proposamenarekin lotutakoak.

2.- Proposamenen ondoriozko inbertsioak eta nahikoa diru-sarrera sortzea.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, urbanizazioan eta eraispenetarako hartu beharreko konponbideak zehatzago zehaztearen eta antolamendu berria berrestearen kalterik gabe, honako hau ateratzen da:

- Perdillekin, urbanizazioaren arloan egin beharreko inbertsioa honakoa hau da: 77.945 euroko kontrata bidezko egikaritzea, BEZik gabe. Nolanahi ere, eraispen-kostu zehatzak kontuan hartu beharko dira, hartzen den proiektu-soluzioa kontuan hartuta.
- San Martinen, urbanizazioaren eta eraispenen arloan egin beharreko inbertsioa honako hau da: 1.112.650 euroko kontrata bidezko egikaritzea, BEZik gabe.

Ondorioz, 1.190.595 euroko urbanizazio-inbertsioa ateratzen da guztira, eta lortutako hondar-balioarekin alderatuta (4.975.347 €), 3.784.752 euroko saldo positiboa ematen du, azpieremuetako lurzoruen balioarekin bat datorrena.

Horrek erakusten du jarduketa bideragarria dela, alde batera utzita adinekoen egoitzarako eraikin berria egiteko behar diren baliabideak; izan ere, Udalari egokituko zaio horiek zehaztea, beste administrazio eta erakunde batzuekin egin beharreko hitzarmenen bidez.

Donostian, 2022ko abenduan.



Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

“4. -BIDERAGARRITASUNA ETA EKONOMIA-JASANGARRITASUNA”
dokumentua

“4.2. EKONOMIA-JASANGARRITASUNEKO AZTERLANA”

AURKIBIDEA

I.-	Dokumentuaren xedea.....	2
II.-	Erabilera produktiboetara zuzendutako lurzoruaren nahikotasuna eta egokitzapena.....	2
III.-	Sare publikoak mantentzeko ahalmen publikoa eta horien afekzioek ogasun publikoan duten eragina.	2

I.- DOKUMENTUAREN XEDEA.

Dokumentu honetan, sare publikoak mantentzeko ahalmen publikoa eta horien afekzioek ogasun publikoan duten eragina ebaluatzen dira, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan xedatutakoari jarraituz. Dekretu horretako 31.1.f) artikulua ezartzen du ingurumen-ebaluazio bateratua behar duten hirigintza-planetan “ekonomia-jasangarritasuneko memoria” bat sartzeko betebeharra.

Erabilera produktiboetara zuzendutako lurzoruen nahikotasunean eta egokitzapenean duten eragina ere balioesten da.

II.- ERABILERA PRODUKTIBOETARA ZUZENDUTAKO LURZORUAREN NAHIKOTASUNA ETA EGOKITZAPENA.

Lehenik eta behin, aipatutako bigarren gaiari heltzen zaio.

Ohartarazten da proposamenak ez diola udalerriko jarduera produktiboari eragiten. Testuinguru horretan, merkataritza-lokaletara bideratutako eraikigarritasuna murriztu egin da (1.376 m²(s)-tik 250 m²(s)-ra), nahiz eta batik bat adinekoen egoitzarako eraikigarritasun fisikoa handitu.

III.- SARE PUBLIKOAK MANTENTZEKO AHALMEN PUBLIKOA ETA HORIEN AFEKZIOEK OGASUN PUBLIKOAN DUTEN ERAGINA.

Bestalde, hiri-lurzoruen espazio publikoa mantentzeko egungo betebeharrei dagokienez, planeko proposamenek bideen eta espazio libreen zuzkidura publikoak handitzea baino ez dakarte berekin, honako baldintza hauetan:

- 655 m² espazio libreetan Perdillegin.
- 2.569 m² espazio libreetan eta bideetan San Martinen.

3.224 m²-ko azalera osagarria egungoarekiko ekarriko luke horrek, egungoarekin alderatuta murriztua.

Hori bezalako espazio libre bat mantentzeko batez besteko parametro ekonomikoak erreferentziatzat hartuta, 0,80 €/m²/urteko aleko kostua kalkulatzen da, eta 2.580 €/urteko kostu gehigarria ateratzen da.

Era berean, kontuan hartu behar dira, besteak beste, OHZren, EJZren, TMIZren, uren saneamenduagatiko tasen eta saneamendu- eta zabor-bilketako zerbitzuak ematearen arloan ekimenaren garapenaren ondoriozko diru-sarrera berriak.

Hala, ondorio horietarako, urteko 150 eta 185 euroko batez besteko balioak kalkulatzeko dira ondoriozko gizarte-babeseko etxebizitza berriei eta etxebizitza tasatu berriei, hurrenez hurren, dagokien OHZren bidezko bilketarako.

Ur-, saneamendu- eta zabor-zerbitzuen kanonari eta/edo tasei dagokienez, bestalde, etxebizitza berri bakoitzeko urteko 160 €-ko udal diru-sarrera gehigarriak zenbatetsi behar dira.

Ondorioz, honako hau ateratzen da:

a.- Bizitegi-erabilerei dagokien OHZ:

$$3 \times 150 = 450 \text{ €/urtea}$$

$$83 \times 185 = 15.355 \text{ €/urtea}$$

$$\text{GUZTIRA} = 15.805 \text{ €/urtea}$$

b.- Zerbitzuengatiko tasak.

$$86 \times 160 = 13.760 \text{ €/urtea}$$

Urteko 29.565 euroko diru-sarrera gehigarria kalkulatzeko da.

Horren guztiaren arabera, OHZren eta ur-, saneamendu- eta zabor-zerbitzuengatiko tasen ondoriozko diru-sarrerak, berez, planaren ondoriozko zuzkidura berrien mantentze-kostuak baino handiagoak dira eta, beraz, jarduketak ez dakar defizitik eta/edo saldo negatiborik udal-ogasun publikoarentzat.

Horrez gain, Udalak behar diren baliabideak jarriko ditu, bai adinekoen egoitza berria eraikitzeko, bai egoitza hori mantentzeko.

Donostian, 2022ko abenduan.



Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa

“6. EGIKARITZE-LABURPENA” dokumentua

AURKIBIDEA

I.-	Laburpen honen xedea.	1
II.-	Egikaritze-laburpenaren beharra. Edukia.	1
III.-	Eremuaren egungo egoera, indarrean dagoen hirigintza-araubidea eta planean planteatutako aldaketak.	2
IV.-	Planaren ondoriozko hirigintza-antolamenduaren aldaketak.	4
V.-	Planaren ondoriozko afekzioak indarrean dagoen hirigintza-antolamendua eta/edo bere egikaritze-prozesua eteteko arloan.	5
VI.-	Dokumentazio grafikoa.	5

I.- LABURPEN HONEN XEDEA.

Laburpen honen xedea da Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketaren egikaritze-laburpena azaltzea eta ezagutzera ematea, alor horretan indarrean dauden xedapenetan (zehazki, II. epigrafean zehazten direnetan) araututakoarekin bat etorritz.

Hirigintza-dokumentu hori eraginpeko eremuan indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzeko egin da, bertan adierazitako baldintzetan eta irismenarekin.

II.- EGIKARITZE-LABURPENAREN BEHARRA. EDUKIA.

2015eko urriaren 30eko Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua) 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, *hiri-antolamenduko tresnak onesteko edo aldatzeko prozeduretan, jendaurrean jarritako dokumentazioak honako hauek adierazten dituen egikaritze-laburpena ere izan beharko du:*

- a) *Proiektatutako antolamenduak indarrekoa aldatzen duen eremuen mugapena, eremu horien kokalekuaren planoak eta aldatetaren norainokoa.*
- b) *Hala badagokio, egungo antolamendua, hirigintza egikaritzeko prozedura edo hirigintzan esku hartzeko prozedurak etendako eremuak eta etenaldiaren iraupena.*

Agindu hori bera errepikatzen da 105/2008 Dekretuko 32. artikuluan, eta osatu ere egiten du, indarrean dagoen antolamendua aldatzen duten eremuen mugaketei dagokienez. Izan ere, arauaren arabera, halakoetan txertatu egin behar dira *egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko egoera konparatzeko aukera emango duten planoak edo informazio grafikoak.*

Hurrengo IV. epigrafean, laburbilduta, aldaketa honen xede den eremuaren zatiak identifikatzeari eta mugatzeari buruzko alderdiak azaltzen dira. Zati horietan, egindako hirigintza-dokumentuan proposatutako hirigintza-antolamenduak indarrean dagoena aldatzen du.

Era berean, hurrengo V. epigrafean, dokumentu horrek indarrean dagoen antolamendua eta/edo hura gikaritzeko prozedurak eteteari dagokionez dituen eraginak azaltzen dira, laburbilduta.

Aldez aurretik, agindu hori behar bezala betetzeko, hurrengo III.3 epigrafean laburbilduta azaltzen dira hirigintza-dokumentuaren helburuak.

III.- EREMUAREN EGUNGO EGOERA, INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA-ARAU BIDEA ETA PLANEAN PLANTEATUTAKO ALDAKETAK.

1.- Egungo egoera.

HAPORen aldatetaren xede den eremua Azpeitiko erdigunean dago, hirigune historikotik gertu.

Era berean, bi azpierzemuk osatzen dute: Perdillegi eta San Martin. Elkarrengandik oso hurbil daude, 300 metro inguruko distantzia baitago batetik bestera.

"Perdillegi" 2.2 azpierzemua Urola ibaiaren ibilgutik hurbil dago. Garmendipe, Jose de Artetxe eta Perdillegi kaleekin eta Azpeitiko Lehen Hezkuntzako Institutuko partzelarekin egiten du muga. Bertan irakaskuntza-erabilerak hartzen dituzten bi eraikin daude, bai eta aire zabalean ibilgailuak eta karabanak aparkatzeko azalera ere. Hiri-garapenaren ondorioz ia erabat artifizializatutako eta iragazgaiztatutako lurzorua da. 7.125 m²-ko azalera du eta haren mugak dokumentuko I.1 eta I.2 planoetan ageri dira. Lehendik dagoen eraikina ez dator bat HAPOn harentzako aurreikusitako xedearekin.

"San Martín" 2.3 JZ azpierzemuak Ibai Eder ibaiarekin eta Harzubia eta San Martin kaleekin egiten du muga, eta mugakide du 2.1 Zezen plaza azpierzemua. Bertan, ekipamendu-erabilerako eraikinak daude, alde batean herriko zaharren egoitzak okupatutakoak eta, beste batean, behin-behineko kultura- eta irakaskuntza-erabilerakoek okupatutakoak. Lurzoru artifizializatua da eta lorategi-eremua du. Ibaieder ibaiaren aurrealde osoa zuzkidura-eraikin batek okupatzen du gaur egun. 6.090 m²-ko azalera du eta haren mugak dokumentuko I.1 eta I.2 planoetan ageri dira. Ondare eraikiak indarreko HAPOn harentzako aurreikusitako ekipamendu-erabilerak du. lehendik dauden eraikin batzuek ez dute betetzen gaur egun Ibaieder ibaiaren ibilgura eskatzen den distantzia.

Bi azpierzemuen egungo egoera dokumentuko I.3. planoan ageri da grafikoki, 2020. urtean hartutako lekuaren ortoargazki bati dagokiona. Biak 80 eta 90 m-ko koten artean daude, Urola eta Ibaieder ibaiak elkartzen diren tokian. Egungo egoera bat dator lurralde oso antropizatuarekin; landaredi naturala ia desagertu egin da. Bi ingurune urbanizatu eta eraikiak dira.

2.- Indarreko hirigintza-araubidea.

Azpeitiko HAPO da planteatzen den Aldaketaren xede den esparruan egiturazko hirigintza-araubidea ezartzeko erreferentziarako esparrua. Horiek horrela, proposatzen den antolamenduaren xede den eremuak eragina du gaur egun hiritar gisa sailkatutako lurzorian. Testuinguru honetan, Perdillegi azpierzemua bizitegi-erabilerakotzat jotzen da, eta San Martin, ekipamendu-erabilerakotzat.

HAPOk San Martin azpierzemuko antolamendu xehatua ere definitzen du (ekipamendu-partzela), Perdillegi dagokiona Plan Berezi bat izapidetzearekin lotzen badu ere, I.5. planoan adierazten den bezala.

Gaur egun, indarrean dagoen plangintzak bizitegi-garapen berri bat aurreikusten du Perdillegin, babes publikoko etxebizitzak egiteko, gehienbat erregimen tasatukoak, eta San Martin azpierzemuaren zuzkidura-erabilerak (adinekoen egoitza) finkatzen du, HAPOko Garmendialde eremuko hirigintza-arau partikularrean jasotzen den bezala.

3.- Planaren helburuak, irizpideak eta proposamenak.

HAPOren aldaketaren xede den eremuaren mugapenak honako helburu eta irizpide hauek ditu:

- Adinekoentzako egoitza arloko tokiko ekipamendua berritzea eta egoera berrira egokitzea eta, aldi berean, eskaintza handiagoa egitea.

Hori dela eta, Perdillegi azpierzemua aukeratu da helburu horri erantzuteko.

- San Martinen babes publikoko etxebizitza berri baten eskaintza antolatzea. Eskaintza hori, gutxienez, HAPOn kalkulaturako gutxieneko balantzea bermatzen duen eskaintzaren baliokidea izango da. Horren arabera, BPESen (babes publikoko etxebizitza sozialak) 281,20 m²(s) beharko lirateke Perdillegin eta BPETen (babes publikoko etxebizitza tasatuak) 6.693,20 m²(s), gutxienez.
- Azpeitia 2030 Plan Estrategikoaren zehaztapenak kontuan hartzea.

Planaren proposamenek bi azpierzemuen kalifikazio orokorra aldatzea dakarte, baita aldaketa gehigarri hauek ere:

- Perdillegi azpierzemua (gaur egun bizitegitarako dena) ekipamendutara bideratzea, hori guztia adinekoen egoitza berri bat ezartzeko. 7.125 m²-ko azalera du.
- San Martin azpierzemua (gaur egun zuzkiduretarako dena) batik bat bizitegi-erabilera bideratzea, babes publikoko etxebizitzaren erregimenean. Ibaider ibaiaren ezkerreko ertzean ez da eraikiko, eta ibai-ertzeko pasealeku bat duen ezpona birnaturalizatu bat antolatuko da. 6.090 m²-ko azalera du.
- San Martinen antolamenduak 9.452 m²(s)-ko hirigintza-eraikigarritasuna izango du sestra gainean eta, horrez gain, garajeak eta erabilera osagarriak aurreikusi dira sestra azpian. Eraikin berria, gutxienez, Ibaider ibaiaren ibilgutik 15 metrora egongo da, ibaiaren ertza lehengoratzeko.
- Dokumentuak Perdillegi eremuaren antolamendu xehatuaren baldintzak arautzen ditu, eta, bereziki, adinekoen egoitza hartuko duen eraikinaren oinplanoaren okupazioa eta bolumena. 13.000 m²(s)-ko eraikigarritasun fisikoa izango du. Eraikin berria, gutxienez, Urolaren ibilgutik 20 metrora egongo da.
- Antolamenduak, gainera, gutxienez 100 zuhaitz landatzea aurreikusten du, eskatutako zuzkiduraren baliokidea eta, gainera, IAEn horri buruz planteatzen denari erantzuten dio.
- Proposatutako esku-hartzeak nabarmen hobetzen du egungo egoera uholde-arriskuari dagokionez.

Antolamenduak ez du azpiegitura-obra garrantzitsurik eskatzen, San Martingo azpierzemuan dagokion antolamendu xehatua zehaztu ondoren ateratzen denaren kalterik gabe.

Zonakatzeko orokorreko baldintza berriak II.2 planoan azaltzen dira gutxi gorabehera, egungo egoerarekin alderatzeko (I.4 plano).

IV.- PLANAREN ONDORIOZKO HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN ALDAKETAK.

Planaren ondoriozko indarreko hirigintza-antolamenduaren aldaketa garrantzitsuena bi azpierzemuen kalifikazio orokorraren trukea da.

Honako hauekin osatzen da:

- San Martinen Ibaieder ibaiaren ezkerraldea leheneratzearekin, pasealeku bat izango duen ezponda birnaturalizatu bat antolatzea aurreikusiz. Horretarako, gaur egun ibaiaren ibilgua osatzen duen eraikina eraistea proposatzen da, eta tokiko ingurumena eta paisaia birkalifikatzea ahalbidetuko da.
- Bi azpieremuetako sestrak doitzearekin, uholde-arriskua minimizatze aldera.

Esan bezala, aldaketa horiek grafikoki azaltzen dira I.4 eta II.2 planoen konparazioarekin.

V.- PLANAREN ONDORIOZKO AFEKZIOAK INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA/EDO BERE EGIKARITZE-PROZESUA ETETEKO ARLOAN.

Dokumentu honetan ez da aurreikusten antolamenduz kanpoko egoeran dagoen edo antolamenduarekin bat ez datorren eraikinik kalifikatzea.

Hori horrela da, alde batetik, Perdillegin dauden ekipamendu-eraikinek aurreikusitako eraikuntza-, erabilera- eta jabari-baldintzak betetzen dituztelako. Bestetik, San Martinen idatzi beharreko Plan Bereziari dagokio horri buruzko erabakiak hartzea.

Testuinguru horretan, aplikatu beharreko lege-esparruaren arabera, planaren hasierako onarpenak berekin ekarriko ditu, besteak beste:

- * Xede den eremuan indarrean dagoen antolamendua etetea (1. plano).
- * Etete horrek, era berean, lizentziak ematea etetea dakar, besteak beste, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko indarreko Legeko 85. artikuluan ezarritako kasuetan eta irismenarekin.
- * Lizentzien etete hori gehienez ere 2 urtekoa izango da, hirigintza-plan honek hasierako onarpena jasotzen duenetik kontatzen hasita.

VI.- DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

Egikaritze-laburpen honetan deskribatzen dena grafikoki azaltzen da berariaz aipatu diren planaren planoetan.

Donostian, 2022ko abenduan.



Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa